

ANDOAINGO GOIKOPLAZA / LA GOIKOPLAZA DE ANDOAIN

Aritz Díez Oronoz

Goikoplaza, Andoainek jatorriz Tolosarekin zituen lotura juridikoak moztu eta hiribildu independente modura ezarri zenaren emaitza nabarmenena da. Aldi berean, bertako hiritarrek identitate berri hau aditzera emateko indarra eta sendotasuna zuen erdigune berri bat eraikitzeko egin zituzten lanen lekuko nagusia da. Udaletxearen eraikuntzak xedatzen du ibilbide luze honen hasiera, 1649. urtean. Jatorriz izaera landakor bat zuen espazio bat izatetik, bertan eraiki ziren eraikin publiko eta espazio berrien indarrez izaera urbanoago bat lortu zuen Andoaingo Goikoplazak. Francisco de Ibero arkitektoak 1756. urtean diseinatutako San Martin elizaren eraikuntza eta plazaren zaharberritzea —Agustin de Leiza y Latijera ongileak sustatuta eta Aita Larramendik bermatuta—, plazaren biziraupena XIX. mende luzean zehar jazo ziren gatazken ginetik, pasa den mendearen 60 eta 70 hamarkadetan zehar sustatu ziren hirigintza esku-hartzeek eragindako suntsipenen momentu tragikoak eta, azkenik, M. Ruiz Fabré arkitektoak 1978an proposatu zuen berreraiketa tipologikoari esker plazak izan zuen berreskuratze prozesua dira gaur egun ezagutzen dugun Goikoplazaren sorreran dauden etapa nagusiak.

Plaza, Udaletxea, Tourseko San Martin Eliza, Kanpandorre barrokoa, Pilota plaza, Bigarren Karlistadetako fortifikazioak, Francisco Marrubiza, Francisco de Ibero, Montserrat Ruiz Fabre, Andoain, Gipuzkoa.

La Goikoplaza es el resultado más tangible de la consolidación de Andoain como una villa independiente tras su desanexión de Tolosa y representa el principal testimonio arquitectónico del esfuerzo de sus habitantes por construir un centro que representara su identidad. La construcción del primer ayuntamiento en 1649 marca el inicio de este recorrido en el que la recién creada plaza fue enriqueciéndose gracias a nuevos espacios y edificios que la transformaron de la plaza rural de la que fue origen a otra plaza con vocación más urbana. La construcción de la Iglesia de San Martín del arquitecto Francisco de Ibero y la reestructuración de la plaza en 1756 —promovidas por el benefactor Agustín de Leiza y Latijera y apoyada por el padre M. Larramendi—, su supervivencia a las varias contiendas militares que jalonaron el largo siglo XIX, los trágicos momentos de su destrucción durante las desafortunadas intervenciones urbanísticas de los años 60 y 70 del pasado siglo y, finalmente, su reconstrucción tipológica gracias al proyecto de la arquitecto M. Ruiz Fabré en 1987 son las principales etapas de la gestación de la Goikoplaza tal y como la conocemos hoy en día.

Plaza, Casa Consistorial, Iglesia de San Martín de Tours, Campanario barroco, Frontón, Fortificaciones de la Tercera Guerra Carlista, Francisco Marrubiza, Francisco de Ibero, Montserrat Ruiz Fabre, Andoain, Gipuzkoa.

Goikoplaza is the most tangible result of the consolidation of Andoain as independent village after its separation from Tolosa. This square represents the main architectural testimony of the efforts made by its inhabitants to build a centre that represented their identity. This transformation begun in 1649, when the first town hall was built and the square passed from a rural looking one to an urban space, thanks to the addition of new constructions and public buildings, that can be summarised in these four stages: the Church of San Martín by Francisco de Ibero in 1756 —promoted by the benefactor A. de Leiza y Latijera and supported by M. Larramendi—, the preservation of the square through the various military conflicts of the 19th century, the tragic moments of its destruction during the unfortunate urban planning interventions of the 1960s and 1970s and, finally, its typological reconstruction thanks to M. Ruiz Fabré in 1987.

Square, Townhall, Martin of Tours church, Baroque belltower, Fronton, Fortifications of the Third Carlist War, Francisco Marrubiza, Francisco de Ibero, Montserrat Ruiz Fabre, Andoain, Gipuzkoa.

ESKEMA / ESQUEMA

SARRERA / INTRODUCCIÓN

1. “PLAZA BERRIAREN” HASTAPENAK. UDALETXEAREN ERAIKUNTZA / ORIGEN DE LA “PLAZA NUEVA”. LA CONSTRUCCIÓN DEL AYUNTAMIENTO

- 1.1. Udaletxearen proiektua / El proyecto de la casa consistorial
- 1.2. Proiektuaren autoretza / La autoría del proyecto
- 1.3. Francisco Marrubizaren eraikitako udaletxea / La casa consistorial de Francisco Marrubiza
- 1.4. “Plaza Berria” / La “Plaza Nueva”

2. SAN MARTIN ELIZA BERRIA / LA NUEVA IGLESIA DE SAN MARTÍN

- 2.1. Eliza eraikitzeko hartutako lur-sailak / Los terrenos para la iglesia
- 2.2. Francisco de Iberoren proiektua / El proyecto de Francisco de Ibero
- 2.3. Elizaren eraikuntza: obra azkar bezain problematikoa / La construcción del edificio: una obra rápida pero problemática
- 2.4. Plazaren eraldaketa / La transformación de la plaza

3. PLAZA BERRIA XIX. MENDEAN ZEHAR / LA PLAZA NUEVA EN EL CURSO DEL SIGLO XIX

- 3.1. Enparantza Lehen Karlistaldian zehar / La plaza durante la Primera Guerra Carlista
- 3.2. Gerrarteko urteak: lehen errebote pilota plaza / El período entre guerras: el primer juego de pelota al rebote
- 3.3. Plaza Bigarren Karlistaldian zehar / La plaza durante la Segunda Guerra Carlista
- 3.4. XIX mende amaierako plaza / La plaza a finales del siglo XIX

4. XX. MENDEKO FRONTOIDUN PLAZA / LA PLAZA CON FRONTÓN DEL SIGLO XIX

- 4.1. Udaletxearen erreforma / La reforma de la casa consistorial
- 4.2. Hiri garapen-planak eta plazaren suntsipean / Desarrollismo urbano y destrucción de la plaza
- 4.3. Andoaingo plaza berria. Hiri berreskiratze proiektua / La nueva plaza de Andoain. Un proyecto de recuperación urbana

5. ITURRI DOKUMENTALAK ETA BIBLIOGRAFIA / FUENTES DOCUMENTALES

- 5.1. Artxiboak / Archivos
- 5.2. Bibliografia / Bibliografía

INTRODUCCIÓN

La historia urbana de la Goikoplaza de Andoain discurre paralela al camino emprendido por sus habitantes para erigirse en una comunidad independiente, para emanciparse y participar de la vida política de la provincia, constituyéndose en una villa semejante a las que habían ido fundándose en el territorio desde el s. XIII.

Hasta el año 1615, fecha en la que Felipe III otorga el título de Villa a Andoain, la población había carecido de instituciones propias más allá del concejo local. Bajo el dominio de los señores locales durante toda la Edad Media, la nueva realidad socioeconómica surgida por la organización política y urbana impulsada gracias a la fundación de las primeras villas hizo que las comunidades rurales se incorporaran a sus jurisdicciones en busca de protección y privilegios¹. En el caso de la universidad de Andoain, incorporándose a la jurisdicción de la villa de Donostia en 1379 para pasar posteriormente, tras el final definitivo del poder de los Parientes Mayores, a la jurisdicción de Tolosa, a partir del año 1475².

Sin una carta fundacional de la corona que impulsara el desarrollo urbano de la población, Andoain mantuvo hasta ese momento una estructura urbana compuesta por varios núcleos rurales, en origen autónomos e independientes en lo que respecta a su estructura urbana. Los cambios jurídicos y demográficos acaecidos en la organización territorial de la provincia tuvieron una influencia indirecta pero relevante en el desarrollo de estos núcleos habitados. El afianzamiento del Camino Real como principal arteria que recorría la provincia a lo largo del valle del río Oria —pasando por las tierras de Andoain— definió un eje en torno al que se fue concentrando progresivamente la población. Este núcleo habitado principal, formado

1 ARÍZAGA, B.; *El nacimiento de las Villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1978.

2 GALDOS, A.; "Andoain, una aldea medieval", *Leyçaur*, 14, 2017, pp. 148-155

SARRERA

Andoaingo Goikoplazaren historia urbanoa, andoaindarrek komunitate banandu bat osatzeko hasitako bidearekin bat hedatu zen, hau da, XIII. mendetik aurrera sortu ziren hiribilduen antzera, burujabetu eta probintziako bizitza politikoan parte hartzeko beharrezkoa zen hiribildu estatus politikoa lortzeko eginiko ahaleginekin batera.

Felipe III. erregeak 1615an Andoaini hiribildu titulua aitortu zion arte, ez ziren tokiko kontzejua baino sendoagoak ziren instituzio berezkorik egon Andoainen. Erdi Aroan leinuen eta ahaide nagusien mendean egonagatik, probintzian sortu ziren lehen hiribilduek eragin zituzten eraldaketa sozioekonomiko eta politikoek herri eta komunitate landatar txikiak haien jurisdikziora batzera behartu zituzten babes eta erregalia bila¹. Andoaingo unibertsitatearen kasuan, lehenik 1379an Donostiako hiribilduaren jurisdikziora ondoren, 1475. urtetik aurrera, leinu gerrak amaituta probintzian segurtasun egoera egonkortu zenean, Tolosako jurisdikziora atxikitzeke².

Herriaren hedapen urbano eta ekonomikoa erregetzaren babespean bultzatu zezakeen hiri-gutunik gabe, Andoainek ordurarte, haien forma eta egitura autonomoak eta jatorrizko egitura landatarra mantentzen zuten herrixkez osatua egon zen. Probintziako lurralde antolamenduan jazotako aldaketa juridiko eta demografikoek Andoainen zeharkako eragina izan bazuten ere, jatorrizko herrixka hauen garapenarentzako garrantzitsuak izan ziren arrastoak utzi zituzten. Oria ibaiaren trazadura jarraitzen zuen Errege Bidea probintziako errepide nagusi bihurtze eta sendotzeak —Andoaingo lurretatik pasatzen zen bidea— biztanleria haren inguruan

1 ARÍZAGA, B.; *El nacimiento de las Villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1978, 21-32 orr.

2 GALDOS, A.; "Andoain, una aldea medieval", *Leyçaur*, 14, 2017, 148-155 orr.

por la alargada sucesión de casas de los barrios de Zumea, Leizaur y Andoain, fue formando paulatinamente una identidad común, agrupada en torno a la misma parroquia de San Martín de Buruntza, que ya estaba definida al menos para la primera mitad del s. XIV. Gracias a esta parroquia tenemos la primera referencia al nombre de Ayndayn —Andoain— en un manuscrito del obispado de Pamplona fechado en 1350³.

Sin embargo, lo que comenzó como un modo de protegerse de la violencia e inseguridad provocadas por los linajes locales se convirtió pronto en fuente de conflictividad entre el dominio ejercido por las villas y los anhelos de autonomía de los pobladores⁴. La evolución de la estructura urbana de Andoain fue un fiel reflejo de las aspiraciones de autogobierno que tenían las élites locales dentro del marco de las instituciones provinciales. Al mismo tiempo que la universidad de Andoain construía una estructura de gobierno con la intención de obtener su exención jurisdiccional de la villa de Tolosa, su estructura urbana se concentraba, tomando una forma más urbana y definida.

El espacio habitado principal estaba formado en ese momento por una sucesión de casas que flanqueaban el paso del Camino Real. Éstas formaban un primer grupo de edificios junto al puente de Santa Cruz —en torno a la ermita de la que toma su nombre— y se prolongaban por parte de la actual calle Mayor, aproximadamente hasta la altura de la calle Doktor Huizi. En el centro de esta sucesión de edificios el camino se ensanchaba sensiblemente, formando un espacio de forma triangular, el único asimilable a una plaza pública, conocido posteriormente como Bekoplaza. Continuando el recorrido del camino, al otro lado de la loma sobre la que se construirá la Goikoplaza, junto al cruce con el camino a Lasarte, donde se situaba la casa de Berrozpe, se agrupaban el último grupo de edificios vinculados a este futuro eje urbano.

Alrededor de esta alargada agrupación de casas se extendía un amplio espacio de tierras de cultivo y montes en los que perduraban, al margen del nuevo eje de desarrollo urbano, el resto de agrupaciones rurales, generalmente con un caserío disperso como el de los lugares de Zumea y Andoain. En éste último se situaba, sobre una pequeña loma en las faldas del monte Buruntza, la antigua iglesia de San Martín⁵. Alejada más de medio kilómetro del que se estaba consolidando como principal espacio habitado de la villa, la iglesia mantenía su importancia como el centro civil y religioso de la población. A ella asistían gran parte de los habitantes del lugar, junto a ésta tenían enterrados a sus ancestros y este era el emplazamiento donde acostumbraba a reunirse el concejo, desde fechas que se remontan más allá

3 *IBÍDEM*, pp. 100-116.

4 GARRIDO, I.; "Andoain en tiempos de expansión", *Leyçaur*, 14, 2017, pp. 160-162.

5 Los restos de la iglesia, derribados tras la construcción de la nueva iglesia de San Martín fueron descubiertos tras varias campañas arqueológicas promovidas por el Ayuntamiento de Andoain y realizadas por Aranzadi entre 1995 y 2003. Los resultados de las campañas arqueológicas fueron publicadas en: IBÁÑEZ, A.; "Iglesia de San Martín de Buruntza (Andoain)", *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, n.º 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003.

progresiboki metatzen hasi zen ardatz nagusi bat sortu zuen. Sortze bidean zegoen nukleo berri hau Zumea Leizaur eta Andoaingo auzo zaharren etxebizitza segida luzeaz osatua zegoen eta andoaindarren nortasun bateratu bat sortzeko lehen hazia izan zen, XIV. mendearen lehen erdirako behintzat Buruntzako San Martin elizaren inguruan finkatua zegoena. Tenplu honi esker kontserbatzen dugu Ayndayn-en —Andoainen— lehen aipamena, 1350. urteko data duen Iruñeako Apezpikutegiko eskuizkribu batean³.

Hala ere, tokiko leinuek sortutako biolentzia eta ziurtasun ezetatik babesteko irtenbide modura hasi zena, aise bihurtu zen hiribilduek jarduten zuten jabetza-
ren eta haien menpe zeuden herrietako biztanleek zituzten burujabetasun desiren arteko gatazka iturria⁴. Andoaingo herri-egituraren garapena, tokiko eliteek beti ere probintziako kontestuan zituzten autogobernu desioen islada zorrotza izan zen. Tolosako hiribilduko jurisdikzioa behin-betiko uzteko Andoaingo Unibertsitateak bere gobernu egitura propioak eraikitzen zituen aldi berean, Andoaingo hiri ehuna elkartzen eta metatzen joan zen, geroz eta forma urbanoago eta zehatzagoa hartuz.

Andoaingo erdigune nagusia, Errege Bidearen alboetan zeuden etxebizitza hilara luze batez osatua zegoen garai haietan. Eraikinek lehen metaketa bat osatzen zuten Santa Krutz zubiaren ondoan —alboko ermitaren izena hartzen duena— eta gaur egungo Kale Nagusiaren ardatza jarraituta luzatzen ziren, Doktor Huizi kalearen kokapeneraino. Eraikin lerrokadura honen erdian bideak zabalgunek txiki bat osatzen zuten, plazatxo trianguluar txiki bat sortuz. Plaza baten izaera zuen espazio bakarra zen zabalgunek hau, gerora Bekoplazaren izena hartuko zuena. Kalearen ibilbidea jarraituta, Goikoplaza eraikiko zen muinoaren bestaldean, hau da, Lasarteko bidegurutzearen eta Berrozpe etxea kokatzen zen tokiaren ondoan, etorkizunean hiribilduko ardatz nagusi bilakatuko zen kalearen inguruan antolatutako azken etxebizitza multzo bat zegoen.

Eraikin multzo luze honen inguruan landa eta mendi eremu zabala hedatzen zen. Bertan, garapen ardatz berriaren eraginetik kanpo, baserri isolatuez osatutako Zumea eta Buruntzako auzoen multzo landatarrek haien jatorrizko egituraketa kontserbatzen zuten. Buruntzako eremu honetan kokatzen zen Buruntzako San Martin eliza zaharra, mendi magalak osatzen zuen muino txiki baten gainean⁵. Herriko erdigune nagusi bilakatzen ari zen tokitik kilometro erdi baino gehiago al-denduta, elizak oraindik ere aspalditik herriko zentro zibil eta erlijioso nagusiaren garrantzia mantentzen zuen. Bertako erritueta gerturatzen ziren biztanle gehienak, bertan zituzten ehortzita andoaindarrek haien asabak eta bertan bildu ohi zen

3 *IBÍDEM*, 100-116 orr.

4 GARRIDO, I.; "Andoain en tiempos de expansión", *Leyçaur*, 14, 2017, 160-162 orr.

5 San Martin eliza berriaren eraikuntza ondoren eraitsitako elizaren arrastoak, Andoaingo Udalak sustatutako eta Aranzadik 1995 eta 2003 urteen artean zuzendutako zenbait arkeologia indusketa kanpainen bidez aurkitu ziren. Indusketen emaitzak hurrengo argitalpenetan argitaratuak izan dira: IBÁÑEZ, A.: "Iglesia de San Martín de Buruntza (Andoain)", *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, n.º 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003.

de los primeros testimonios escritos. Se trataba de un lugar de gran significación, el centro de la antigua organización territorial y socioeconómica de Andoain, que con la obtención del villazgo se verá abocada a ceder el paso, no sin conflictos y resistencias, al nuevo centro de la villa que comenzó a tomar forma concreta a partir de la segunda mitad del siglo XVII.

* * *

La construcción de la Goikoplaza o Plaza Nueva —tal y como se conoció durante largo tiempo— es el resultado más representativo de este proceso de gestación y consolidación de la nueva identidad colectiva y jurídica de Andoain. Es la manifestación más tangible de esta transformación social y política que vivió la villa a partir de su desanexión de Tolosa, el principal testimonio construido del paso de una comunidad rural y dispersa a otra con vocación más urbana y concentrada en un núcleo habitado común.

Los capítulos en los que se estructura este escrito ordenan el relato de este proceso siguiendo el rastro de las arquitecturas que fueron conformando este lugar tal y como lo conocemos hoy en día. Una secuencia que se prolongó, con el apoyo de diferentes promotores y en contextos diferentes, durante varios siglos, llegando prácticamente hasta nuestros días.

La historia urbana de Goikoplaza puede reducirse a cuatro hitos principales, cuatro momentos edilicios distanciados en el tiempo, construidos en diferentes contextos pero compartiendo una misma idea, una misma voluntad de construir un centro común para Andoain: su origen con la construcción de la Casa Consistorial de Francisco Marrubiza en 1649, su transformación a través de la escenografía barroca ideada por Francisco de Ibero con la construcción de la iglesia de San Martín a partir del año 1756, la incorporación del frontón a comienzos del s. XX y, finalmente, la reconstrucción de la plaza tras los desafortunados derribos de los años 60, a partir del proyecto realizado por el arquitecto M. Montserrat Ruiz Fabrè en 1985.

Lo que probablemente comenzó como una ocupación ocasional y espontánea del espacio adyacente al Camino Real por parte de los andoaindarras se convirtió, tras la obtención del villazgo en 1615, en un programa de renovación urbana impulsado por el nuevo consistorio. Tanto el emplazamiento elegido como la primera actuación impulsada por el Consistorio son significativos del espíritu con el que se formó este espacio. Situado en el centro natural de la nueva organización urbana de la villa, en lo alto de una colina hasta ese momento desocupada, a medio camino entre las casas de la Calle Mayor y las de Berrozpe, la vocación conciliadora y unificadora del lugar elegido respecto de los diferentes núcleos que formaban parte de Andoain queda declarada por la elección de un lugar de tal centralidad. Por otro lado, la decisión de iniciar esta actuación con la construcción de una Casa Consistorial, edificio por excelencia del poder civil, transmitía con claridad meridiana esta vocación de reafirmar la autonomía municipal recién adquirida y defenderla en el contexto de la vida política de la provincia.

antzina-antzinako denboretatik herriko biltzarra, kontserbatzen ditugun lehen testigantza idatziak baino lehenagoko garaietatik. Hortaz, herritarren iruditerian garrantzi handiko tokia zen, Andoaingo antzinako lurralde eta egituraketa sozioekonomikoaren erdialdea. Buruntzako herrigunearen garrantzia handia bazen ere, Andoainek hiribildu aitortpena lortu zuenean, XVII. mendearen bigarren erditik aurrera sendotzen hasi zen hiribilduko erdigune berriak itzal handia egingo zion azkenik, zenbait gatazka eta erresistentzia gaudituta, jatorrizko erdigune hau guztiz ordezkatu zen arte.



1. irudia. Andoaingo Goikoplazaren argazkia Udaletxea eta San Martín elizarekin. AGG-GAO_OA04071, © Indalecio Ojanguren (1963).

Imagen n.º 1. Fotografía de la Goikoplaza con el Ayuntamiento y la Iglesia de San Martín. AGG-GAO_OA04071, © Indalecio Ojanguren (1963).

* * *

Goikoplazaren, edota urte luzez Plaza Berritzat ezagutu zen plazaren eraikuntza, Andoainen nortasun kolektibo eta juridiko berriaren sortze eta sendotze prozesuaren emaitza nabarmenena da. Hiribildua Tolosatik banandu zenetik murgildu zen eraldaketa sozial eta politikoaren zeinu ukigarriena da. Hau da, jatorrizko komunitate landatarra egituratzen zen habitat sakabanatutik, hiribilduko biztanleek bizi ziren nukleo amankomun bat sortzerako bideak utzi duen espazio eraiki nagusi eta urbanoena.

Plazaren hastapenak abiapuntu hartuta, gaur egun arte luzatu den mendeetako eraikuntza prozesu kolektibo hau hartzen du hizpide idatzi honek. Kontestu ezberdinetan eta eragile ezberdinen bultzadarekin, kasik gaur egun arte luzatu den bide honetan garrantzitsuak izan ziren arkitekturen arrastoa jarraitzen dituzte idatziaren kapituluek.

Goikoplazaren historia urbanoa lau mugarri nagusietan laburbildu daiteke, denbora luze batean zehar sakabanatutako lau eraikuntza zedarrietan, bakoitza bere kontestu eta bitxitasun bereizgarriekin, baina Andoaintzat erdigune amankomun bat sortzeko asmo berdinekin lotuak. Plazaren hastapenak 1649. urtean eraikitako Francisco Marrubizaren udaletxearekin. Bigarrenik, bere izaera publikoaren

La significación que tuvo en aquel contexto la decisión de erigir una Casa Consistorial se desarrolla en el primer capítulo: se trataba de un tipo edilicio con muy pocos precedentes en el país —las principales villas de la provincia carecían de un edificio semejante— y debido a ello, el edificio proyectado por Francisco Marrubiza se posicionó como precursor de una de las experiencias arquitectónicas más genuinas del país, la de los ayuntamientos barrocos vascos, que como se demuestra en esta investigación, tuvo en Goikoplaza de Andoain, uno de los precedentes más importantes.

A este primer impulso edilicio le siguió una centuria después otro de igual importancia: la construcción de la nueva iglesia de San Martín. El compromiso sentido por el indiano andoainarra Agustín de Leiza y Latijera con su lugar de origen, cuando transmitió al ayuntamiento su decisión de erigir, a sus expensas, un nuevo templo en la villa, dio el respaldo definitivo a la consolidación de la plaza como nuevo centro de la población. El encargo, encomendado al padre Manuel Larramendi y al arquitecto Francisco de Ibero, se materializó en la construcción de la actual iglesia de San Martín entre los años 1759 y 1774, empresa a la que está dedicado el segundo capítulo. La iglesia, especialmente su fachada principal con el alto campanario, presidió desde entonces la plaza, formando una nueva escenografía urbana de espíritu barroco que formó la esencia de lo que todavía es la Goikoplaza andoainarra.

El paso del siglo XIX no impulsó grandes transformaciones urbanas en el lugar. Este periodo —convulso tanto en lo social como en lo político— dio lugar a diferentes contiendas militares que afectaron a Andoain y en la plaza se materializaron en la construcción de recintos defensivos efímeros a los que se dedica el tercer capítulo. Fue durante este periodo cuando los juegos tradicionales que se practicaban desde antaño en la plaza —la pelota y el juego de arrastre— comenzaron a tomar un lugar propio en el espacio público, registrándose las primeras intervenciones para consolidar el campo del juego de pelota.

La construcción del primer frontón de rebote en el año 1901 marcó el momento de mayor extensión de la plaza y la consolidó con los tres elementos que lo caracterizan todavía hoy en día: ayuntamiento, iglesia y frontón. Sin embargo, las desafortunadas decisiones urbanísticas que siguieron al auge demográfico y desarrollismo económico que vivió Andoain a lo largo del siglo XX marcaron definitivamente el lugar. El derribo de algunos de los edificios que formaban el conjunto, la construcción de nuevos barrios de bloques residenciales en el entorno de la plaza durante el franquismo y finalmente, la aplicación sistemática del Plan Parcial aprobado en 1975 conllevó la destrucción de este hermoso conjunto urbano.

Afortunadamente, el curso de los acontecimientos dio un rápido giro gracias a la determinación de algunos actores por revertir y enmendar la situación. Las primeras propuestas para la recuperación de la plaza realizadas por Emilio Truchuelo y finalmente, el concurso promovido por el nuevo consistorio para la reconstrucción de la plaza aportaron nueva luz al lugar. El modélico proyecto de reconstrucción urbana dirigido por la arquitecta M. Montserrat Ruiz Fabré ocupa el último apartado de este trabajo.

sendotzea, Francisco de Ibero arkitektoak San Martin eliza berriaren bitarte sortutako eszenografia barrokoarekin. Hirugarrenik XX. mendean zehar gehitutako frontoia eta azkenik, 60. hamarkadan jazotako zoritzarreko eraisteen ondoren, M. Montserrat Ruiz Fabr e arkitektoak 1985. urtean zuzendutako plazaren berreraikuntza.

Andoaindarrek Errege Bidearen alboan zegoen soro batean egiten zuten erabilera natural bat bezala seguruenik hasi zena, aise bilakatu zen, 1615an hiribildu aitortpena lortu ondoren, Udalbatza berriak bultzatutako hiri birgaitze programa batean. Udalbatzak plaza eraikitzeke aukeratutako kokapena zein sustatutako lehen eraikuntza mota, espazio hau sortu zen nahiaren adierazgarri dira. Alde bate-tik, hiribildu gazteak zuen hiri-ehun berriaren erdian kokatuta, ordurarte eraikin nagusirik gabe iraun zuen muino baten gainean, Berrozpeko lekuaren eta Kale Nagusiaren erdibidean, leku honek garai hartan zuen zentraltasunak argi uzten du plaza sortzeko lekuaren hautaketan Andoain osatzen zituzten guneak bateratzeko zegoen nahia. Bestetik, egitasmo hau udaletxearen eraikuntzarekin hasteko erabakiak —botere zibilaren adierazle nagusi zen eraikin batekin, alegia— zuzen-zuzenean helarazten du herriko gobernuak lortu berria zuen estatusa probintziako egunerokotasun politikoaren kontestuan defendatu eta berresteko zuen grina.

Garai hartako kontestuan udaletxe bat eraikitzeke erabakiak izan zuen esangura lan honen lehen kapituluan jorrazten da: gure herrian aurrekari oso eskasak zituen eraikin tipologia bat zen —probintziako hiribildu nagusiek ere ez zituzten antzeko eraikin publiko zibilik— eta hargatik, Francisco Marrutizak proiektatutako eraikina Euskal Herriko arkitekturak izan duen pasarte garrantzitsu eta berezkoen buruan jarri zen, hau da, euskal udaletxe barrokoen tipologiaren buruan, ikerketa honen bidez nabarmentzen den modura, haren aurrekari nabarmenetakoa Andoaingo Goikoplazan izan zuena.

Lehen eraikuntza abiada honi, itzal berdina sortu zuen bigarren bat jarraitu zion mende bat ondoren: San Martin eliz berriaren eraikuntza. Agustin de Leiza y Latijera indiano andoaindarrak bere jatorrizko herriarekiko sentitzen zuen konpromezuari jarraiki, bere kargura tenplu berri bat eraikitzeke asmoak udaletxeari helarazi zizkionean hartu zuen leku honek herriko erdigune berri bezala sendotzeko behin-betiko indarra. Eliza berriaren egitasmoa aurrera eramateko ardura Aita Larramendiri eta Francisco de Ibero arkitektoari eman zitzairen. 1759. eta 1774. urteen artean jazotako gaur egungo San Martin elizaren eraikuntza jorrazten du lanaren bigarren kapitulua. Eliza, nagusiki haren fatxada nagusia eta kanpandorre barrokoak izan ziren ordutik aurrera plazaren buru, oraindik ere Andoaingo Goikoplazaren funtsa den eszenatoki barrokoari forma eman ziotenak.

XIX. mende luzean ez ziren eraldaketa sakonik egon plazan. Arlo sozialean eta politikoan dardartia izan zen aldi honetan Andoaini zuzenean eragin zioten zenbait gerra nagusitzen dira, plazari dagokionez behin-behineko zenbait defentsa sistema eta barruti gotortuen eraikuntza utzi zituztenak. Hirugarren kapituluan jorrazten den mende honetan ezarri ziren plazan forma konkretua hartuta antzinatik leku honetan egiten ziren zenbait joko tradizional: pilota eta idi bemak nagusiki. Urte hauekoak ditugu espazio publikoa pilota jokoarentzat egokitzeko eginiko lanen lehenetariko erregistroak.

1. ORIGEN DE LA “PLAZA NUEVA”. LA CONSTRUCCIÓN DEL AYUNTAMIENTO

El enclave de Goikoplaza fue un lugar de reunión para los habitantes de Andoain antes de su primera configuración como plaza del ayuntamiento en la segunda mitad del s. XVII. El primer documento referente a ella señala que tras la construcción del ayuntamiento, las barreras utilizadas para las corridas de toros tuvieron que trasladarse “del puesto donde antes se ponían”, lo que indica que el lugar ya venía siendo usado para eventos públicos de importancia para la sociedad de la época⁶. El emplazamiento era realmente propicio para ello: una parcela sin fuertes pendientes adyacente al Camino Real —antiguo camino de Santiago—, en lo alto de una loma junto al cruce del ramal que se dirigía por Bazkardo a Lasarte, y sobre una altura visible, situada a medio camino entre los barrios de Leizaur, Andoain y Buruntza, en el centro natural de aquella población que desde antaño los pobladores aspiraban a constituir en una villa de pleno derecho.

Debido a la ausencia de más testimonios directos o indirectos, solo podemos deducir el aspecto que tuvo aquella originaria plaza rural. Probablemente comenzó con la adaptación de los terrenos contiguos al camino real para un uso ocasional, hasta que en una fecha que nos es desconocida —quizá con la obtención del título de villa en 1615— fueron adquiridos por el consistorio a la casa de Egoabil para convertirlos en un espacio público permanente⁷. La documentación indica que no se realizaron obras de gran envergadura durante la primera mitad del siglo. La plaza no era entonces más que un llano junto al camino, de una anchura equivalente a la actual y una longitud comprendida entre la actual fachada del ayuntamiento y el camino de Bazkardo, lugar ocupado por los terrenos y antigua casa de Arrate, que acotó durante siglos la extensión de la plaza, tal y como puede observarse en la primera cartografía de Andoain del año 1840⁸. Un lugar que sabemos estaba acondicionado mínimamente para realizar corridas y que con toda probabilidad daba cabida a otros eventos públicos como mercados, apuestas de arrastre e incluso el juego de pelota, que en aquella época se realizaba al largo, en terrenos llanos —pilota-soro— que no requerían más que de un suelo firme con poca pendiente y unas dimensiones similares a las de nuestra plaza⁹.

6 A.M.A., Libro de Cuentas 1653-54, f.195, c.38.

7 De la propiedad de los terrenos que existían en lugar se hablará en detalle en el capítulo dedicado a la construcción de la iglesia de San Martín. Los terrenos comprendidos entre la plaza y el camino a Bazkardo eran entonces parte de la casa Egoabil. Sobre los terrenos de esta casa —documentada desde la segunda mitad del s. XVI— se construyó también la Casa Consistorial, lo que hace suponer que toda la parcela entre el camino real y el camino a Bazkardo fuera originariamente de su propiedad.

8 Cartoteca del Servicio Histórico Militar, GUI-M 3/9.

9 Para saber más de las características de los primitivos espacios para el juego de pelota, ver: CHAVARRI SARASUA, J. A.: *La alargada huella de la plaza de pelota. Permanencias y procesos de transformación en la trama urbana de las villas guipuzcoanas*. Tesis doctoral dirigida por Xabier Unzuurrungaza, Departamento de Arquitectura de la UPV/EHU, 2016.

1901an eraiki zen errebote frontoiaren eraikuntzak plaza bere hedapen handienara eraman zuen eta oraindik gaur egun ere ezaugarriak dituen hiru elementuekin egituratu zuen: udaletxea, eliza eta frontoiarekin. Hala ere, Andoainek XX. mendean zehar bizi zuen hazkunde demografiko eta ekonomikoa sostengatzeko hartu ziren zorigaitzozko ebazpen urbanistikoak marka itzulezinak utzi zituen lekuan. Plaza osatzen zuten zenbait eraikinen eraisteak, frankismo garaian eraiki ziren bloke isolatuetan oinarritutako auzo berriak eta azkenik, multzo urbano eder honen suntsipena eragin zuen 1975. urteko Plan Partzialaren onarpenak Goikoplaza eta bere ingurua modu itzulezinean hondatu zuten.

Zorionez, zenbait aktoreek gertakari hauek irauli eta zuzentzeko bultzatutako egitasmoek azken mende honetako inertzia aldatzea lortu zuten. Emilio Truchuelok proposatutako plazaren lehenengo birgaitze proposamenak lehenik eta Udalak sustatutako arkitektura lehiaketa azkenik, norantza berri bat ezarri zuten plazaren garapenean. M. Montserrat Ruiz Fabr e arkitektoak zuzendutako plazaren berreraikitze proiektu eredugarria dauka aztergai lan honen azken atala.

1. "PLAZA BERRIAREN" HASTAPENAK. UDALETXEAREN ERAIKUNTZA

Goikoplazaren kokalekua XVII. mende inguruan forma konkretua hartu baino lehenagotik, andoaindarren topaleku izan ohi zenaren zantzuak baditugu. Honen seinale da, adibidez, bere berri ematen duen lehenengo dokumentua. Bertan, udaletxea eraiki bezain pronto herrian egiten ziren zezenketentzat erabiltzen ziren hesi eta ezkutalekuak "del puesto donde antes se ponían" aldatu behar izan zirela adierazten da, espazio hau garaiko gizartearentzat garrantzitsuak ziren ekitaldiak antolatzeko jada erabiltzen zela baieztatuz⁶. Tokia, funtzio publiko honetarako guztiz aproposa zen: Errege Bidearen ondoan kokatutako orube lau bat —Donejakue bide zaharraren ondoan—, inguruetatik bistakoa zen muino baten gainean kokatua, Bazkardotik Lasarteraino zihoan errepidea desbideratzen hasten zen puntuan bertan, garai hartan Andoaingo hiribildua osatu berri zuten hiru auzoen arteko —Leizaur, Andoain eta Buruntza— erdigune zehatzean.

Jatorrizko herri-plaza honen inguruko dokumentu eta testigantzetan dagoen hutsuneagatik, bere itxuraren inguruko suposizioak egin ditzakegu soilik. Errepidearen alboan zeuden landa-eremuaren behin-behineko egokitze lanekin hasi zen leku honen erabilera publikoa seguruenik, momentu ezezagun batean, beharbada 1615. urtean hiribildu tituluaren aitortza lortu eta gutxira, udaletxeak Egoabil etxeko jabetzakoa zen orube hau behin-betiko plaza bat sortzeko eskuratu zuen arte⁷. Kontserbatzen den dokumentazioaren arabera ez dirudi mendearen lehen

6 A.U.A., Kontu Liburua 1653-54, f.195, c.38.

7 Tokian zeuden orubeen jabetzaren inguruan San Martin elizaren eraikuntzari zuzendutako kapituluaren landuko da zehaztasun handiagorekin. Plazaren eta Bazkardoko bidearen artean kokatutako soroak garai hartan Egoabil etxearenak ziren. Udaletxea etxe honen lurren gainean eraiki zenez —XVI. mendetik behintzat dokumentatua dagoena—, ondorioztatu daiteke Errege Bidearen eta Bazkardoko errepidearen arteko orube osoa jatorriz etxe honen jabetzakoa zela.

1.1. El proyecto de la casa consistorial

La elección de este emplazamiento para la construcción del ayuntamiento en 1649 supuso la significación definitiva de este lugar como nuevo centro de Andoain. Esta decisión no estuvo exenta de ciertas resistencias y fue motivo de conflicto entre los vecinos de la villa, que acostumbrados a la celebración de las reuniones junto a la antigua iglesia de San Martín de Buruntza, veían en la nueva casa consistorial una amenaza al *statu quo* imperante hasta entonces en la localidad¹⁰.



2. irudia. Plaza eta udaletxea, fatxada guztiz edaldatu zuen erreformaren aurretik. AGG, OA04054, © Indalecio Ojanguren (1916).

Imagen n.º 2. Plaza y ayuntamiento antes de la reforma que alteró su fachada original. AGG, OA04054, © Indalecio Ojanguren (1916).

A diferencia del resto del territorio español, en el que ya existían casas consistoriales con una tipología asentada al menos desde el s. XVI, las villas guipuzcoanas carecieron hasta ese momento de ese tipo de edificios¹¹. Los concejos mantenían la

¹⁰ A pesar de que la asamblea decretó realizar las reuniones en el nuevo edificio en 1667, éstas continuaron realizándose en la iglesia. Ello provocó conflictos que llegaron a su punto álgido en 1671, cuando los vecinos fueron convocados para realizar la elección de los regidores en la iglesia y tres corregidores no acudieron a la elección. Un juez ordenó que desde entonces las reuniones para efectuar las elecciones se realizaran en la casa concejil. GONZÁLEZ DIOS, E.: "Aldaketen mende bat. Andoain XVII. mendean. Un siglo de cambios. Andoain en el siglo XVII", *Leyçaur*, 14, 2017, p. 230.

¹¹ ARRAZOLA, M. A.; "El Arte Barroco en el País Vasco. La Arquitectura de los siglos XVII y XVIII, en Guipúzcoa", *Cultura Vasca II*, Erein, Donostia, 1977, p. 300; LOZANO BARTOLOZZI, M. M.: *Historia del Urbanismo en España II. Siglos XVI, XVII y XVIII*. Madrid: Anaya, 2011, p. 240.

erdian eraldaketa lan handirik egin zirenik. Garai hartako plaza, errepide ondoan kokatutako soro bat besterik ez zen, gaur egungoak duen zabalera antzeko batekin, udaletxea eraikiko zen kokalekutik Bazkardorako errepidearen tokiraino hedatzen zen larre lau bat besterik ez. Kokaleku honetan mende luzez plazaren luzera definitu zuen Arrateko etxe zaharra zegoen, 1840. urteko kartografia batean ikus daitekeen modura⁸. Kontserbatzen den lehen dokumentuaren arabera, ziur gaude zezenketak egiteko moldatua zegoen lekua zela. Hortaz, beste ekitaldi publikoak ospatzeko ere gai izan behar zuen, besteak beste merkatuak, idi probak eta nola ez, pilota jokoa, garai hartan luzera jokatzeko zena, gure plazaren dimentsioak zituzten pilota soroetan hain zuzen ere, hau da, aldapa eskasa eta dimentsio egokiak besterik behar ez zituzten zelai edo larre lauetan⁹.

1.1. Udaletxearen proiektua

Udalak 1649. urtean udaletxea eraikitzeke soro hau aukeratu izanak, kokalekua Andoaingo erdigune berria bilakatu zuen. Hasieratik erabaki honen aurkako zenbait jarrera piztu ziren herrian, hamarkadak iraungo zituen gatazka bat sortuz. Kontzejuaren biltzarrak Buruntzako San Martin elizaren ondoan egiteko ohiturari jarraiki, zenbait hiritarrek udaletxea eraikitzeke erabakia mehatxutzat hartu zuten, ordurarteko auzoen *statu quo*a behin betiko eraldatuko zuen erabaki baten modura¹⁰.

Estatuko beste lurralde gehienetan ez bezala, XVI. mendetik aurrera udal funtzioak betetzeko eraikinak izan ohi zituztenak, Gipuzkoako hiribilduek ez zuten berandu arte horrelako eraikin publikoen beharrik izan¹¹. Herri eta hiribilduetako kontzejuek, "Batzarre" edota "Kontzeju ireki" deritzon bilkura sistema erabili ohi zuten, eliza edota hilerrien ingurutako espazio irekietan bilduz, Elizak garaiko gizartean zuen influentziak sostengatutako asabeen ohitura mantenduta. Egia bada ere zenbait hiribilduetako batzarrak eraikin konkretu eta finko batzuetan egin ohi zirela, orokorrean, partikularrek utzitako espazio deserosoak ziren, eraikin pribatuen moldaketa xumeak, dena dela ez zutenak inoiz ere botere zibilarentzat espreski sortutako eraikin publiko baten adierazpen munta lortu¹².

8 Zerbitzu Historiko Militarren Kartoteka, GUI-M 3/9.

9 Jatorrizko pilota-soroen ezaugarriak ezagutzeko, ikusi: CHAVARRI SARASUA, J. A.: *La alargada huella de la plaza de pelota. Permanencias y procesos de transformación en la trama urbana de las villas guipuzcoanas*. Xabier Unzurrunzagak zuzendutako Doktore Tesia, Arkitektura Saila, UPV/EHU, 2016.

10 Batzarrak eraikin berrian egiteko erabakia 1667. urtean hartu bazen ere, elizan egiten jarraitu ziren. Honek zenbait gatazka sortu zituen, 1671. urtean bere puntu gorenera iritsi zirenak. Urte honetan, errejidoreen hautaketa egiteko biltzarra elizan deitua egonagatik, hiru korregidorek ez ziren agertu ere egin. Orduetik, epai batek udalbatzaren bilerak egiteko Udaletxe berria erabiltzera behartu zuen. GONZÁLEZ DIOS, E.: "Aldaketen mende bat. Andoain XVII. Mendean. Un siglo de cambios. Andoain en el siglo XVII", *Leyçaur*, n.º 14, 2017, 230 or.

11 ARRAZOLA, M. A.; "El Arte Barroco en el País Vasco. La Arquitectura de los siglos XVII y XVIII, en Guipúzcoa", *Cultura Vasca II*, Erein, Donostia, 1977, 300 or.; LOZANO BARTOLOZZI, M. M.: *Historia del Urbanismo en España II. Siglos XVI, XVII y XVIII*. Madrid: Anaya, 2011, 240 or.

12 Hurrengo kasuak egoera honen adierazgarri dira: Hondarribikoa, udalaren biltzarrak parrokiaren dorrearen barnean egiten zituenak, Bergarakoa, 1555. urtean biltzarrak egiteko eraikin bat erosi zuena, Ordiziako ordezkariak biltzen ziren etxea edota Tolosa eta Azkoitiako hiribilduek bilerak egiteko erabiltzen zituzten dorretxeak.

costumbre de reunirse en espacios abiertos, generalmente junto a las iglesias o camposantos, una tradición heredada de los antiguos “concejos abiertos” o “batzarres” y mantenida por la influencia del poder religioso en la sociedad de la época. Si bien es cierto que algunas de ellas disponían de edificios o espacios concretos donde realizar este cometido, a menudo eran lugares inadecuados o prestados por particulares, adaptaciones de edificios existentes que en ningún caso adquirieron la carga representativa que suponía la construcción *ex profeso* de un edificio dedicado al poder civil¹².

En el contexto social de la Gipuzkoa del s. XVII, la decisión de construir una casa consistorial significaba una afirmación de la autonomía municipal de la villa. No es extraño, por tanto, que los primeros ejemplos de este tipo de arquitectura civil se dieran en aquellas poblaciones con instituciones más recientes, como era el caso de Andoain, que buscaban reafirmar su nuevo estatus en la provincia frente a otras poblaciones con un villazgo más longevo. En términos arquitectónicos, la construcción de una casa consistorial suponía emprender la construcción de un tipo de edificio con muy pocos precedentes en la arquitectura local, una labor que exigía reinventar y adaptar los modelos de arquitectura civil para dar respuesta a las nuevas necesidades de función y representación del concejo.

La construcción de un edificio específico para el consistorio puso a la villa de Andoain en la vanguardia de este tipo de edificios, encabezando uno de los episodios más importantes y genuinos de la arquitectura civil vasca, el de los ayuntamientos barrocos, que en aquel momento apenas había dado unas leves muestras de la importancia que adquirió en la centuria siguiente. En el contexto local, la determinación del consistorio por convertir la plaza en un espacio representativo del poder municipal recién reconocido en la provincia supuso además, el comienzo de las transformaciones que se llevarían a cabo gracias a la permanencia en el tiempo de esta voluntad de construir un centro común para todos los barrios que formaban la joven villa.

Las únicas referencias sobre la construcción de la casa consistorial las tenemos gracias a un libro de cuentas del s. XVII descubierto tras la reorganización del Archivo Municipal en los años 80¹³. Publicados en la investigación realizada por Idoia Mendiluze sobre la plaza de Andoain, contiene información decisiva para precisar la fecha de construcción y autoría del edificio¹⁴. Según este registro, a finales del mes de noviembre de 1649 se pagó a Juan de Belaunzaran Azconouieta una suma importante de

12 Son representativos de este caso el de Hondarribia, que desde que se tiene constancia utilizaban el interior de la torre de la iglesia parroquial, del edificio adquirido por la villa de Bergara para instalar su sede en 1555, la vivienda en la que se reunían los representantes de Ordizia, o las casas torre que tomaron las de Tolosa y Azkoitia para realizar sus reuniones.

13 Hasta ese momento, el desconocimiento sobre el edificio fue absoluto. Las primeras investigaciones realizadas por Manuel Lecuona dan todavía una datación muy genérica al edificio e incluso en referencias más cercanas a su construcción, como en las directrices escritas por Vargas Ponce para el Diccionario Geográfico de España a partir de datos tomados *in situ*, se da una datación y autoría del todo erróneas, afirmando que fue construida en 1799 por D. Bernardo Aguirre con el diseño del conocido arquitecto andoaindarra D. Pedro Manuel Ugartemendía. RAHist., Fondo Vargas Ponce, Leg., 15. Texto transcrito en: TELLECHEA IDIGORAS, J. I.: “Un hijo egregio de Andoain”, *Agustin de Leyza, bienhechor indiano*, Andoaingo Udala, Andoain, 1994, pp. 16-21.

14 La información referente a la construcción de la Casa Consistorial está transcrita y recogida en: MENDILUZE, I.: “Plaza concejil-parroquial de la villa de Andoain”, *Andoaingo paperak*, 5, pp. 135-142.

Probintziako XVII. mende hasierako gizartearen kontestuaren barne aztertuta, udaletxe bat eraikitzeo ausardia, hiribilduek haien udal autonomiaren defentsan egindako adierazpen sendotzat uler zitekeen bakarrik. Ez da harritzekoa arkitektura zibil honen lehen adibideak instituzio berrienak zituzten hiribilduetan sortu izana. Andoainen kasuan adibidez, probintziako beste hiribilduekin alderatuta, haren titulua duela hiru hamarkada eskas aitortua zuena. Arkitektura arloan, momentu hartan udaletxe bat eraikitzeak lekuko arkitekturaren aurrekari oso eskasak zituen eraikin tipologia bat sortzea suposatzen zuen. Alegia, ezagunak ziren ereduaren moldaketa sakon bat eskatzen zuen egitasmo bat, beste arkitektura zibilen ezaugarriak kontzejuak zituen erabilera eta ordezkaritza funtzio konkretuetara egokitzeko lan itzela eskatzen zuen lana.

Udaletxe berria eraikitzeo egitasmoa harturik, arkitektura tipologia honen abangoardian kokatu zen Andoaingo hiribildua, euskal arkitektura zibilak izan duen pasarte garrantzitsu eta propioenaren buru-buruan: Euskal Herriko udaletxe barrokoena hain zuzen ere, momentu hartan hurrengo mendean hartuko zuen garrantziaren lehen izpiak ere erakutsi ez zituen mugimendua. Udaletxearen eraikuntzak garrantzi handia izan zuen aldi berean Andoaingo hiri-egiturarentzat. Soro hau Andoaineko espazio zibil esanguratsuen bilakatzeko asmoak leku honek etorkizunean izango zituen eraldaketei hasiera izan zien. Hau da, hurrengo mendeetan Andoaingo hiribildu gaztea osatzen zuten auzo guztientzako hiri-espazio amankomun bat sortzearen bidean ereindako hazia izan zen.

Errege Bideko fatxadak bere leihoen dimentsio eta kokapenean aldaketa batzuk jasan baditu ere, orokorrean jatorriz izan zuen itxura mantentzen du. Fatxada nagusiaren konposaketa elementuak alde honetan bikoizten dira eraldaketa batzuk eta lengoia herrikoiago bat erabilita. Adibidez, erliebe-lauki batean sartutako leihoaren eskema eta plazarantz begira dauden arkuen motibo nagusia fatxadaren bi alboetan errepikatzen dira. Bien artean, proportzio bertikala dituzten hiru arku-leiho batzuk kokatzen dira. Bost tarte hauek lehenengo eta bigarren solairuetako leihoen kokapena ebazten dute, proportzio laukiagokoak eta hormaren iltzuko txuriaren azalera bereizten diren harlanduez eraikiak daudenak. Eraikinaren beste altxaerak —gaur egun oso eraldatuak daudenak— izaera publikoa ez izanagatik eraikinaren funtzioei zerbitzu zuzena emateko pentsatuak zeudenez, egituraketa libreago bat zuten. Hala adierazten dira behintzat 1984. urteko erreformaren planoetan eta beste zenbait argazki historikoetan. Eskaileraren espazioa argiztatzeko ireki zen leiho zabala ez ezik, beste leiho gehienak erreformaren urte honetaino eraldaketa sakonik gabe iritsi zirela esan daiteke⁴³.

Eraikinaren barne-antolaketa dagokionez, 1926ko erreforman egin ziren goiko solairuen berrantolaketa sakonenengatik, proiektu horretako behe solairuko oin planotik bakarrik ezagutu dezakegu Marrutizak eraikitako jatorrizko eraikinaren egituraketa. Behe solairuan ageri diren harri-horma lodiak ezinbestez udaletxearen jatorrizko egiturarenak izan behar dute. Hormek solairua bi hormartetan banatzen zuten: bata plazara eta kalera irekia zegoen arkupeko atariarentzat eta bestea hiru espaziotan banatua zegoen barne espazioentzat. Erdiko barne espazioak, hiru tarreetako eskailera hartzen zuen osoki, Errege Bidearen aldean gela zabal bat zegoen eta kontrakoan, lurraren kontra erdi lurperatuta, ziegaren espazioak. Goiko solairuetako gelek egitura sotilagoren batekin antolaketa sistema bera jarraituko zuten seguruenik. Mendeetan zehar egin zen eraikinaren erabilera desegokiak eragin zituen desitxuraketek hasierako bi espazioen kokapeneanaren testigantza utzi digute soilik⁴⁴: udalbatzen areto nagusiarena, bigarren solairuan arkupearen hormartean espazio beraren erdigunea hartzen zuena, eta “arma gela” izenez ezagutzen denarena, areto nagusiaren albo batean kokatzen zena⁴⁵.

43 A.U.A., AG437/3-442+; A.U.A., 4192XX01.

44 1926ko erreformaren kontratazio eskriturretan XX. mende hasierako udaletxearen deskribapen labura kontserbatzen da. Bertan argi geratzen da eraikinak hartu zituen erabilera anitzen maila eta honek eraikinaren erabilera instituzionalean sortu zituen arazoak. Udaleko eskolak, etxebizitza modura alokatzen ziren gelak, alhodiga, haragi mozketarako gelak, eraikinaren barrualdean pilotara jokatzeke debekuak eta pertsonen etengabeko mugimenduek eraikinak jasan zuen erabilera desegokiaren adibide batzuk dira. A.U.A., 51H/9; MENDILUZE, I.; *op. cit.*, 134 or.

45 MENDILUZE, I.; *op. cit.*, 141-142 orr.



3. plano. Plazak 1675. urtean zuen itxura azaltzen duen axonometria. Aritz Díez Oronoz.

Plano n.º 3. Axonometría con la reconstrucción de la plaza en 1675. Aritz Díez Oronoz.

1.4. “Plaza Berria”

Udaletxearen eraikuntzak hiribilduaren zentro berri bilakatzeko azken bultzada eman zion plazari. Ordurarte Errege Bidearen ardatzaren inguruan sortutako nukleo txiki anitzetan antolatuta zegoen Andoain bezalako herri landatar batentzat, gertaera honek hiritar-esanahi handia izan zuen. Hiri-egitura planifikaturik gabe hazi zen herri batentzat, udaletxearen proiektuarekin estuki lotua zegoen plaza publiko baten sortzeak kontzientzia urbano berri baten adierazle argia zen. Alegia, probintziako beste hiribilduek zeuzkaten espazio publikoekin alderatu zitekeen espazio publiko berri bat sortzea zen helburu nagusia, honen bidez Andoaingo hiribilduak aitortu berria zuen estatusaren berrespena publikoki helarazteko.

Udaletxearen obrak martxan ziren bitartean, 1653. urtean zezen-plaza ixten zituzten hesiak lekuz aldatu zirela badakigu⁴⁶. Urte gutxi geroago, 1657an, eraikuntza lanak bukatu berriak zirenean, udaletxeko erregistroetan “allanar la plaza nueva” helburu zuen auzolan batentzako janari gastuak ageri dira, plaza berria egokitzeko lanak segidan egin zirenearen seinale⁴⁷. Soroaren berdintze lanak izan ziren garai honetako lan nabarmenenak, urte horretan bertan Thomas de Legarra eta Martin Perez de Eguzquiça harginek “la pared de la nueva plaza del Conzexo” eraikitzeke zenbait egun hartu baitzituzten, mende bat geroago eliza eraikiko zen soro altuagoak eusteko horma egiten hain zuzen ere⁴⁸.

Plaza eraldaketa nabarmenik gabe egon zen hurrengo gizaldi osoan, marrazkian ageri den antzeko egoera bat izanik. Agustín de Leitzak “plaza, plazuela o campo pequeño” bezala deskribatzen du bere gutunetako batean, udaletxe eta plazaren eraikuntzatik mende erdira jazo ziren zenbait haurtzaroko oroitzapen azaltzen dituenean⁴⁹. Hortaz, momentu hartan plaza zoladurarik gabeko espazio bat behar zuen izan, oraindik finkatzeke zegoen espazio baten itxura zuen plaza bat. Hala ere, argi dago orubearen berdintze eta euste-hormaren eraikuntza lanek —garai hartan gaurkoak baino altuera baxuagoko harlangaitz-horma xume bat zena— errektangelu luze baten forma zuen plazaren dimentsio orokorrak eta hurrengo mendeetako eraldaketen gidalerro bihurtuko ziren ardatz nagusiak ezarri zituztela. Eraiki berria zen udaletxearen fatxadarekin hegoaldean eta Arrateko etxe zaharraren hormarekin iparraldean —baliteke pilota jokoaren lehen errebote horma bihurtuta— plazaren luzera finkatuta gelditu zen, espazio publikoa ondoan zegoen Errege Bidera begira jarritz.

46 A.U.A. Kontu Liburua 1653-54, f.195, c.38.

47 A.U.A. Kontu Liburua 1657-58, f.209, c.19.

48 *IBÍDEM*, f.204, c.43.

49 A. Leizaren 1760ko ekainaren 13ko gutuna A. Larramendiri. AHLoy., Larramendiren paperak, 4. Karpeta (12. apala, 4. pluteoa).

Durante los siguientes cien años, la plaza debió mantener sin grandes transformaciones una disposición similar a la que se representa en el dibujo. En una misiva de Agustín de Leiza en la que relata algunos recuerdos de su infancia que debieron producirse medio siglo después de la construcción, la describe como una “plaza, plazuela o campo pequeño”, indicando que en aquel momento era todavía un espacio sin pavimentar y con una estructura sin consolidar⁴⁹. Los trabajos de nivelación y la construcción del muro de contención —en aquel momento probablemente un muro de mampostería de menor altura que el actual— establecieron la anchura del espacio rectangular de la plaza y los principales ejes que condicionaron las transformaciones realizadas durante los siglos posteriores. La recién construida fachada del ayuntamiento al Sur y el lateral de la antigua casa de Arrate al Norte —probablemente convertida en pared de rebote para el juego de pelota— definían la longitud de la plaza y orientaban el espacio hacia el camino adyacente.

2. LA NUEVA IGLESIA DE SAN MARTÍN

El segundo impulso edilicio llegó exactamente un siglo después de la construcción del ayuntamiento. En octubre de 1756, el consistorio recibió una carta informando que D. Agustín de Leiza y Latijera, indiano de origen andoaindarra establecido en la ciudad de Jujuy del Reino del Perú, había enviado a su hermano Sebastián una gran cantidad de dinero destinado a la construcción de una nueva iglesia en la villa⁵⁰. El mismo Agustín había intentado comunicarse en persona con el ayuntamiento mediante una misiva que no llegó a destino y fue debido a la muerte del hermano Sebastián en Cádiz, cuando su albacea testamentario notificó la existencia de estos fondos al consistorio⁵¹.

El episodio es uno de los más conocidos de la historiografía andoaindarra y de la edilia guipuzcoana. Son numerosos los estudios y publicaciones dedicados a este tema, por lo que las líneas que siguen van a insistir, desde una aproximación arquitectónica, solo en aquellos hechos imprescindibles para comprender la importancia que tuvo esta empresa para la consolidación del nuevo centro de la villa⁵².

49 Carta de A. Leiza al P. Larramendi del 13 junio 1760. AHLoy., Papeles del P. Larramendi, Carpeta 4 (Estante 12, plúteo 4).

50 Se conserva el acta del concejo realizado para dar noticia de este hecho. A.M.A. Libro de Actas 1744-1767, LH38Bis, ff. 123-127.

51 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos del s. XVIII. Ignacio de Ibero, Francisco de Ibero*, Departamento de Cultura de la Diputación de Gipuzkoa, Donostia, 1990, p. 227.

52 El episodio ha sido ampliamente estudiado y publicado. Primeramente por el padre Manuel Lecuona, que le dedicó la primera monografía al tema en el bicentenario de la construcción del edificio, por José Ignacio Tellechea que ha estudiado en profundidad la figura de Agustín de Leiza y Latijera, y también por M.^a Isabel Astiazarain, que realizó el primer estudio sobre el arquitecto Francisco de Ibero y su obra.

2. SAN MARTIN ELIZA BERRIA

Udaletxearen eraikuntza bukatu eta mende zehatz batera hasi zen plazaren bigarren eraikuntza bultzada. Peruko erresumako Jujuy hirian bizi zen Agustin de Leiza eta Latijera indianoak bere anaia Sebastiani Andoainen eliza berri bat eraikitzeko diru munta handiak utziak zituenanen gutuna jaso zuen udalbatzak 1756ko urrian⁵⁰. Agustin berak hiribilduko agintariekin kontaktuan jartzeko saioa egin zuen zoritxarrez bidean galdu zen gutun baten bidez eta azkenik, Kadizen jazo zen Sebastian anaiaren heriotzaren ondorioz, bere testamentu-betearazleak gordeta zegoen diru-kopuru handi honen berri eman zion udalbatzari⁵¹.

Gertakari hau Andoaingo historiografiaren eta Gipuzkoako arkitekturaren ezagunetarikoa da. Gaia jorratzen duten ikerketa eta argitalpen ugari daudenez, hurrengo lerroetan hiribilduko erdigune berri honen garrantzia sendotzeko nabarmenak izan ziren gertakariak landuko dira soilik, beti ere espazio honen arkitektura eta hiri-izaeraren ikuspuntua lehenetsita⁵².

2.1. Eliza eraikitzeko hartutako lur-sailak

Eliza berria eraikitzeko, udaletxea eraiki zenetik hiribilduko erdigune zibil bezala bereiztu zen Plaza Berriaren aldamenean zegoen orube bat aukeratu zen. Andoainen martxan jarri nahi zen egitasmoarekin parekotasun handiak zituen aurrekari bat zegoen, proiektuan bete-betean inplikatuak zeuden eragile guztiek ezagutzen zutena, eta kontestu urbanoan zein eskala eta helburuetan oso antzekoa zena: Elgoibarko Kalengoengo plazaren proiektua. Bi kasuetan, hiribildu gazteak osatzen zituzten auzo sakabanatuen artean garrantzi handien hartu zuenaren nagusitasuna finkatzea zen helburu nagusia. Erdigune berri honetatik urruti zegoen eliza bat ordezkatzeko tenplu berri batekin, udaletxe eta pilota jokoarentzako espazio publiko batekin hiribilduen estatus berriaren mailako zentro berri bat osatzea bilatzen zen. Bi kasuetan ere egitasmoei behin-betiko bultzada eman zien finantziaketa lekuko indiano batek erraztu zuen⁵³. Jesuitek, Aita Manuel Larramendi kide zen ordena, Elgoibarko proiektuan inplikatuak egon ziren bere azken faseetatik eta Ignacio eta Andoaingo elizaren arkitektoa izango zen Francisco de Ibero, proiektuaren diseinu eta eraikuntzaren arduradun izan zen lanen azkeneko fasean⁵⁴.

50 Jazoera honen berri emateko eginiko bilkura baten akta kontserbatzen da. A.U.A., 1744-1767ko Akta Liburua, LH388Bis, 123-127 ff.

51 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos del s. XVIII. Ignacio de Ibero, Francisco de Ibero*, Departamento de Cultura de la Diputación de Gipuzkoa, Donostia, 1990, 227. or.

52 Gertakari honen inguruko ikerketa eta argitalpen ugari daude. Lehena Manuel Lecuona apaizak eginiko monografia eraikinaren eraikuntzaren bigarren urteurrenean. José Ignacio Tellechak Agustin de Leiza y Latijeraren pertsona sakonki aztertu du. Bestalde, M.^o Isabel Astiazarainek Francisco de Iberoren eta bere arkitektura obraren lehen ikerketa eta argitalpena jorratu zituen.

53 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, 586. or.

54 *IBÍDEM*, 586-596. orr.

2.1. Los terrenos para la iglesia

El lugar elegido para la construcción del templo fue una parcela adyacente a la Plaza Nueva, un lugar que desde la construcción del ayuntamiento se había distinguido como el nuevo centro civil de la villa. Existía un precedente cercano en la provincia, similar tanto en su contexto urbano como en escala y objetivos de la intervención, que todos los implicados conocían de primera mano: el proyecto de la plaza Kalengoan de Elgoibar. Se trataba también en ese caso de consolidar la centralidad del núcleo principal respecto del resto de asentamiento dispersos en la villa mediante la construcción de una nueva plaza, con una iglesia que sustituía a otra también apartada, un ayuntamiento de nueva planta y un espacio para el juego de pelota. Incluso la financiación de la obra llegaba también de un indiano local, que dio el impulso definitivo al proyecto⁵³. Los Jesuitas —Orden a la que pertenecía el Padre Larramendi— estuvieron implicados al menos desde las últimas fases del proyecto y los mismos Ignacio y Francisco de Ibero —quien diseñó y dirigió la iglesia andoaindarra— se encargaron del diseño y construcción de todos los edificios durante la fase final⁵⁴.

Podemos afirmar que la idea del Padre Larramendi —también la de Agustín de Leiza, asesorado por su hombre *in loco*— fue la de replicar esta experiencia de Elgoibar con la intención de consolidar definitivamente el nuevo centro de la villa trasladando a ese lugar la sede del poder religioso. La importancia que tenía el emplazamiento para los promotores queda patente en la correspondencia entre Agustín de Leiza y el Padre Larramendi. En una de las cartas conservadas, el comitente le relata un recuerdo de infancia inducido tras la misiva del jesuita a la que respondía:

“Yo solo me acuerdo de haber visto —señala D. Agustín—, cuando fui de San Sevastian a despedirme para venir a Cádiz, una plaza, plazuela o campo pequeño, donde está la Casa del Ayuntamiento, a mano derecha de la única calle que corre por mi casa ala puente, y no sé si será la plazuela donde se fabrica la iglesia o el campo que vi que hacía para la iglesia vieja, preguntando donde estaba ésta, por ignorar, a causa de haverme criado en San Sebastián desde la edad de dos años, en los que me dejaron mis padres por su fallecimiento”⁵⁵.

D. Agustín no debía recordar de su tierra de origen mucho más que lo señalado en la misiva y este vago recuerdo de su casa natal, condensado en una vagas imágenes de la plaza, la calle con su puente, de la campiña con la antigua iglesia

53 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, p. 586.

54 *IBÍDEM*, pp. 586-596.

55 Carta de A. Leiza al P. Larramendi del 13 junio 1760. AHLoy., Papeles del P. Larramendi, Carpeta 4 (Estante 12, plúteo 4); TELLECHEA, J. I.; “Un hijo egregio de Andoain”, *Agustin de Leyza, bienhechor indiano*. Andoaingo Udala, Andoai, 1994, pp. 15-16. AHLoy., Papeles del P. Larramendi, Carpeta 4 (Estante 12, plúteo 4).

Aita Larramendiren eta Agustin de Leizaren ideia —azken honena seguruenik tokian arduradun jarri zuen jesuitak kontseilatuta— Elgoibarko eredia jarraitzea zela baieztatu daiteke. Elizaren boterearen egoitz zen tenplu berri baten bidez hiribilduko zentroari azkeneko bukatua ematea zen ideia nagusia. Egitasmoaren sustatzaileentzat leku honek zuen garrantzia aditzera ematen du Agustin de Leiza eta Aita Larramendiren arteko gutuneriak. Kontserbatutako gutunetako batean, Agustinek bere haurtzaroko oroitzapen hunkigarri hau azaltzen zion Larramendiren gutun bati erantzunda:

“Yo solo me acuerdo de haber visto —dio D. Agustinek—, cuando fui de San Sebastián a despedirme para venir a Cádiz, una plaza, plazuela o campo pequeño, donde está la Casa del Ayuntamiento, a mano derecha de la única calle que corre por mi casa a la puente, y no sé si será la plazuela donde se fabrica la iglesia o el campo que vi que hacía para la iglesia vieja, preguntando dónde estaba ésta, por ignorar, a causa de haverme criado en San Sebastián desde la edad de dos años, en los que me dejaron mis padres por su fallecimiento”⁵⁵.

Segurutik Agustinek ez zuela bere sorterritik pasarte honetan adierazten duena baino askoz gehiago gogoratzen. Hargatik, bere jaiotzetik gordetako oroipen nagi honek, plazaren, zubi batean bukatzen zen kalearen, urrunean eliza zaharra zuen landazabalararen irudi lauso hauek esanahi handia izan behar zuten *ongilearentzat*⁵⁶. Gainerako eragileek, hain nostalgikoak ez ziren posizioetatik, lekuaren egokitasunaren ideiarekin bat egiten zuten. Aita Larramendik alde batetik, hiribilduaren erdigune natural zehatzean tenplu berri bat izateak Elizari ematen zion protagonismo eta duintasunarengatik. Aldi berean, Agustini gutun batean aitortzen zion modura, herritarrek gertuko eliza bat izateko zuten premiagatik “donde ir sin las fatigas que al antiguo por su lejanía y riesgo, de arruinándose como amenaza quedar, sin tener a dónde celebrar los divinos oficios”⁵⁷. Arkitektoak, bestetik, plazarekiko eta inguruko lurraldearekiko leku honek zuen erdiko kokapen nagusiagatik, “por hallarse mui en medio y quasi al cento y cuerpo de la republica, y no hallarse en ella otro terreno que se higuale con la situación de la expresada”⁵⁸.

Orubeen ezaugarri nagusiak —jabetzen izenak, azalera eta lur-sailtan zeuden hormen dimentsioak— haien erosketa prozesuan sustatzaile eta jabeen artean sortu ziren desberdintasunen ondorioz egin ziren tasazioengatik ezagutzen ditugu⁵⁹. Eraikuntza ezartzeko erositako plazaren eta Mimendi baserrira zihoan medi-errepidearen artean kokatutako lursaila —gutxi gorabehera gaur egungo Rikardo Arregi

55 A. Leizak Aita Larramendiri 1760ko ekainaren 13an bidalitako gutuna. AHLOY., A. Larramendiren paperak, 4. Karpeta (12. apala, 4. pluteoa); TELLECHEA, J. I.; “Un hijo egregio de Andoain”, *Agustin de Leyza, bienhechor indiano*. Andoaingo Udala, Andoain, 1994, 15-16. orr.

56 TELLECHEA, J. I.; “Un hijo egregio...”, *op. cit.*, 16. orr.

57 A. Leizak Aita Larramendiri 1760ko ekainaren 13an bidalitako gutuna, *op. cit.*

58 AGG-GAO., Civiles Lecuona, Leg. 134, Exp. 3.042, 14v.

59 Tasazioak Gipuzkoako Artxibo Orokorrean kontserbatzen dira. GAO., Civiles Lecuona, Leg. 134, Exp. 3.042.

4. plano. Plazaren inguruak 1675 eta 1750. urteen artean. Aritz Díez Oronoz.
 (a) Udaletxea. (b) Arrate etxea. (c) Egoabil Etxea. (d) Eliza berriaren orubea eta kokapena. (e) M. Zatarainen lurak. (f) F. Zatarainen lurak.

Plano n.º 4. Entorno de la plaza entre los años 1675 y 1750.
 (a) Ayuntamiento. (b) Casa Arrate.(c) Casa Egoabil. (d) Terrenos y situación de la futura iglesia. (e) Tierras de M. Zatarain. (f) Tierras de F. Zatarain.





0m 10m

e: 1/750
50m

en la lejanía, debieron conservar un fuerte significado para el *bienhechor*⁵⁶. El resto de implicados, desde unas posiciones menos nostálgicas, coincidían en la idoneidad del lugar. El Padre Larramendi por la dignificación que suponía para la Iglesia disponer de un templo de nueva planta en el centro de la villa y por la necesidad imperante de que los fieles tuvieran un “templo donde ir sin las fatigas que al antiguo por su lejanía y riesgo, de arruinándose como amenaza quedar, sin tener a dónde celebrar los divinos oficios” como se desprende de la correspondencia con el indiano⁵⁷. El arquitecto, Francisco de Ibero, por la posición central y dominante que tenía sobre la plaza y el territorio circundante, “por hallarse mui en medio y quasi al cento y Cuerpo de La republica, y no hallarse en ella otro terreno que se higuale con la situación de la expresada”⁵⁸.

Conocemos las características generales del terreno gracias a las diferencias que surgieron entre los promotores y propietarios para la compra del suelo, lo que derivó en la realización de varias tasaciones que nos han dejado datos de las propiedades, superficies y preexistencias del emplazamiento⁵⁹. La parcela adquirida para emprender las obras, situada entre la plaza y el camino que conducía al caserío Mimendi —aproximadamente hasta la prolongación de la actual calle Rikardo Arregi— pertenecía a dos propietarios: en la parte adyacente a la plaza a Martín de Zatarain y sus hermanas, dueños de la casa Egoabil, y por la otra parte a Francisco de Zatarain. Las 115 posturas y tercia que computa Francisco de Ibero en su tasación, 3.958 m² al cambio, se correspondían estrictamente con el solar ocupado por el rectángulo exterior de la iglesia, la futura plaza elevada frente a su fachada principal y el pequeño terreno triangular que quedaba entre el lado norte del futuro edificio y el camino que entraba a la plaza⁶⁰. Apenas cabían dos metros de respeto entre el perímetro del terreno adquirido y la base de los muros, lo que indica que en un primer momento no estaba prevista la construcción de los edificios auxiliares anexos en el entorno de la iglesia.

El terreno estaba dedicado por entero a la siembra y carecía de alguna edificación de importancia tanto en el interior como en sus cercanías. Existía solamente un muro en mampostería que atravesaba la parcela dividiendo ambas propiedades y el muro de la plaza debía delimitar claramente el salto de altura entre el futuro emplazamiento de la iglesia y el espacio público frente al ayuntamiento.

56 TELLECHEA, J. I.; “Un hijo egregio...”, *op. cit.*, p. 16.

57 Carta de A. Leiza al P. Larramendi del 13 junio 1760, *op. cit.*

58 ACG., Civiles Lecuona, Leg. 134, Exp. 3.042, 14v.

59 Las tasaciones se conservan en el Archivo General de Gipuzkoa. ACG., Civiles Lecuona, Leg. 134, Exp. 3.042.

60 El pie se correspondía con 1/3 de la vara, que en Gipuzkoa se correspondía a 0,837 m. Para la medición de tierras, la unidad principal en Gipuzkoa era la postura, que se componía de 400, 441 o 576 pies cuadrados. Como señala Francisco de Ibero, la postura utilizada en este caso es de 441, correspondiéndose a 34,328 m². Un estado de mampostería equivalía a 98 pies cúbicos, lo que se corresponde con 2,128 m³.

kaleak osatzen duen ardatzeraino— bi jaberena zen: plazaren aldamenean zegoen zatia Egoabil etxearen jabe ziren Martin de Zatarain eta bere arrebera, eta beste zatia Francisco de Zatarainena. Francisco de Iberok bere tasazioan neurtu zituen 115 postura eta herenak, 3.958 m² sistema metrikoa erabilia, zehazki elizaren perimetroak osatzen duen errektangelua, bere fatxada nagusiaren aurrean dagoen plazatxoa eta iparraldean geratzen zen triangelu formako lur-eremuarekin —elizaren eta plazara heltzen zen bidearen artean zegoen lursailarekin— bat egiten zuten zehazki⁶⁰. Azalera honek osatzen duen perimetroaren eta elizaren hormen artean apenas bi metroetako errespetu distantzia gelditzen zen. Hortaz, argi dago jatorrizko egitasmoan ez zeudela aurreikusiak elizaren inguruan hamarkada batzuk ondoren eraikiko ziren bi etxeak.

Ortuetara eskaintako eremu bat izanik, ez zeuden lursail barruan ez lursailaren gertuko inguruetan tamaina handiko eraikinik. Orubea zeharkatuta bi jabezatzak bereizten zituen harlangaitz-horma bat zegoen soilik. Plazan eraikia zegoen euste-hormak, eraikiko zen elizaren eta udaletxearen aurrean kokatutako plazaren artean zegoen jauzi txikia argi bereizten zuen.

2.2. Francisco de Iberoren proiektua

Eraikinik ez zituen orube garbi batean, baldintzak ohikoak baino askoz ere aproposagoak ziren Franciscok askatasun osoarekin pentsatutako eraikin bat diseinatu zezan. Ordea, eliza inguruko eraikinetatik libre eta baldintza nagusirik ez zituen lursail batean bazegoen ere, proiektuak zenbait bereiztasun bete behar zituen. Tenpluaren orientazioarentzat garrantzitsuena, orubeak plazarekiko eta Errege Bidearekiko zuen kokapena zen. Bi espazio publiko garrantzitsu hauek orubearen ekialdean egonik eta tenpluaren fatxada nagusia plazarantz begiratu zezan, elizaren orientazio kanonikoa alderantzikatu behar zen, absidea ipar-mendebalderantz eta nabearen oina hego-ekialderantz bideratuz.

Bestetik, Buruntzako San Martin elizaren erretaula nagusia eliza berrira lekualdatzeko erabakiak, neurri orokor batean bazen ere, absidearen geometria eta dimentsioak baldintzatzen zituen. Erretaula lekualdatzeko baimena 1766ko uztailara arte erregistratua ez badago ere, elizaren obrak oso aurreratuak zeuden momentu batean, erabaki hau ezinbestez lanak hasi baino lehenagokoa izan behar zuen⁶¹. Ikerketa honen egileak eginiko elizaren planimetriaren eta 1995an berreskuratutako Buruntzako eliza zaharraren erretoetatik neurtutako dimentsioak argi uzten dute bi eraikinen absideen arteko forma eta dimentsioen arteko lotura estua. Argi dago beraz, elizaren lanak erabaki hau aurreikusirik hasi zirela.

60 Oina bergaren 1/3 zen, Gipuzkoan 0,837 metroekin bat egiten zutenak. Orubeen neurketetarako postura zen Gipuzkoako neurri-unitate nagusia, 400, 441 edota 576 oin karratuetakoak izan zitezkeenak. Franciscok adierazten duenagatik, kasu honetan erabilitako Postura 441 oin karratutakoa izan zen, hau da, 34,328 m² zituena. Harlangaitz estatu bat 98 oin kubiko neurtzen zituen, hau da, 2,128 m³.

61 Juan de Bazkardo eskultore famatuaren ikastun gailenetakoa izan zen Domingo de Zatarainen eskultorekin eta Pedro de Latijeraren arkitekturekin eginiko berpizkundeko erretaula bikaina, eliza berriaren absidearen dimentsio konkretuetara egokitzeko zenbait eraldaketa egin ziren. LECUONA, M.: *Boceto Histórico de Andoain*. Gráficas Izarra, Donostia, 1958, 5. or.

2.2. El proyecto de Francisco de Ibero

En un emplazamiento tan libre de edificaciones, las condiciones eran idóneas para que Francisco de Ibero planteara un edificio pensado y construido *ex novo*, desplegando con total libertad sus propios cánones. Sin embargo, a pesar de que el edificio se construiría exento y sobre una parcela totalmente libre de condicionantes, el proyecto partía con algunas singularidades. La más relevante, al menos para la orientación del templo, era la posición del terreno respecto de la plaza pública y el Camino Real, situados al Este. Ello obligaba a invertir la orientación canónica de la iglesia, mostrando el ábside hacia Occidente y su fachada principal hacia la plaza.

Por otro lado, la decisión de trasladar el retablo mayor de la iglesia de San Martín de Buruntza al nuevo templo marcaba —al menos en líneas generales— las dimensiones y geometría de la cabecera del proyecto. A pesar de que el permiso de trasladar el retablo no está registrado hasta julio de 1766, momento en el que la obra estaba ya avanzada, esta decisión tuvo que haberse aceptado antes del inicio de la construcción⁶¹. Una comparación entre el levantamiento realizado por el autor de la iglesia actual con los restos de la antigua iglesia descubierta en 1995 deja clara esta correspondencia entre el trazado del ábside de Ibero y las dimensiones de la cabecera de la antigua iglesia. Por tanto, la obra comenzó con esta decisión ya tomada y prevista desde el inicio.


Poco más sabemos sobre el programa del proyecto. Probablemente, la oposición de parte de la población a la construcción de una nueva iglesia alejada de la de Buruntza —un conflicto que se remontaba a los primeros momentos de la creación de la plaza— hizo que los planteamientos sobre la intervención se gestaran y discutieran a puerta cerrada, sin que el consistorio tuviera un papel relevante entre las consideraciones tratadas entre el Padre Larramendi, como representante de D. Agustín, y Francisco de Ibero. El descontento que mostró el ayuntamiento apenas iniciada la obra por el control total que llevaba sobre las cuentas Francisco de Ibero, que respondía directamente ante el Padre Larramendi, indica que el consistorio se mantuvo al margen de las decisiones, al menos en las primeras fases del proyecto, acaso no queriendo entorpecer la oportunidad que se les había presentado desde las Américas⁶².

No hay duda de que el proyecto nació con un programa claro y definido que tanto comitente como arquitecto conocían y mantuvieron hasta el fin de la obra. Francisco de Ibero tomó como punto de partida la iglesia de San Bartolomé de Elgoibar, edificio que era la referencia principal de los comitentes y que conocía a la perfección, pues había dado en él sus primeros pasos como arquitecto junto a su padre Ignacio⁶³. La insistencia tanto de Agustín de Leiza como del Padre Larramendi

61 El magnífico retablo renacentista con esculturas de Domingo de Zatarain —aprendiz aventajado del famoso Juan de Bazcardo— y arquitectura de Pedro de Latijera, fue recolocado con algunas adaptaciones para adecuarlo a las dimensiones concretas del nuevo ábside. ARRAZOLA, M. A.; "El Arte Barroco... *op. cit.* p. 313.

62 Una muestra de estos conflictos puede verse en: A.M.A., Libro de Actas 1744-1767, LH38bis, ff.205v-206v.

63 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos...* *op. cit.*, pp. 213-216.



4. irudia. Eliza zahar eta berriaren absieen arteko konparaketa. Aritz Díez Oronoz.
(a) San Martín eliza berria. (b) Buruntzako San Martín.

Imagen n.º 4. Comparación entre las cabeceras de la antigua y nueva iglesia. Aritz Díez Oronoz.
(a) Iglesia nueva de San Martín. (b) San Martín de Buruntza.

Proiektuaren hasierako programaren inguruan zer gutxi gehiago dakigu. Buruntzako elizatik urrun zegoen tenplu bat eraikitzeko egitasmoak herriko zenbait sektoreetan sortu zuen oposizioak —plazaren lehenengo urteetan sortutako gatazka berdinaren ondorengoa— egitasmoaren inguruko eztabaida eta ikuspuntuak arlo pribatu batean jorraztera behartu zituzten eragileak seguruenik. Hiribilduko agintariek ere ez zuten ardura handirik izan Agustinen ordezkotzen Aita Larramendi eta Francisco de Ibero arkitektoaren artean hartutako lehen erabakietan. Obrak hasi bezain laister Francisco de Iberok Aita Larramendiren oniritziarekin lanen kontuetan zuen jabetza osoaren aurrean udalak azalarazi zuen atsekabeak adierazten du lehenengo faseetan behintzat hiribilduko agintariak alde batera gelditu zirela. Ameriketatik eskaini zitzaizen aparteko aukera ez zapuzteagatik beharbada, herriko agintariek ez zituzten haien kezka publiko egin elizaren eraikuntza ukigarriagoa egin zen arte⁶².

Egitasmoa orokorrean aztertuta, argi dago komitente eta arkitektoa zuzenean ezagutu eta aldaketa nagusirik gabe obraren bukaera arte mantendu zen programa argi eta zehatz batekin sortu zela. Iberok eredu bezala Elgoibarko San Bartolome eliza hartu zuen, adierazi dugun modura eragile guztien eredu ezagun zena eta gure arkitektoak ezinobe ezaguten zuena, Ignacio bere aitaren aginpean lehen arkitekto pausuk bertan eman baitzituen⁶³. Egia da M.^a Isabel Astiazarainek dioen modura,

62 Gatazka hauen testigantza batzuk hemen aurki daitezke: A.U.A., Libro de Actas 1744-1767, LH38bis, 05v-206v. ff.

63 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos...* op. cit., 213-216. orr.



5. irudia. Erretaula nagusia, jatorrizko berpizkundeko arkitektura eta eskultura adierazirik. Aritz Díez Oronoz.

Imagen n.º 5. Retablo Mayor, con la arquitectura y esculturas del retablo renacentista destacados en color. Aritz Díez Oronoz.

por colocar a Francisco de Ibero al frente de la obra respondía a esta intención de tomar con firmeza las riendas del proyecto y replicar la intervención de la plaza de Elgoibar. Más allá de que el jesuita conociera al joven arquitecto a través de su padre y por sus primeros trabajos como escultor en el santuario de Loyola, como señala M.^a Isabel Astiazarain⁶⁴, lo cierto es que se observa un progresivo abandono de sus labores en la cantera de Loyola —cuyo nombre desaparece de libro de cuentas en 1756— en correspondencia con el comienzo del proyecto andoaindarra⁶⁵.

Sin embargo, el modelo elgoibarra no era —como puede parecer— un proyecto unitario, fruto de una intervención sintetizadora de los valores

arquitectónicos y culturales de la época, sino resultado de un largo proceso de adiciones sucesivas que seguían los esquemas de una tipología edilicia de amplio raigambre en el país: planta en cruz latina con torre a los pies y espacio cubierto exterior⁶⁶. Iniciada en 1646 tras un primer intento fallido, Lucas Longa realizó un tercer plan para el cuerpo de la iglesia que pudo finalmente construirse. Inaugurada

64 ASTIAZARAIN, M. I.: "La Iglesia de San Martín de Andoain", *Agustin de Leyza, el bienhechor indiano*, Andoaingo Udala, Andoain, 1994, pp. 110-111.

65 EGUILLOR, J. R.; "Los maestros Ibero de Azpeitia en la construcción del Santuario de Loyola", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Tomo 43, n.º 1-4, 1987, p. 291.

66 ASTIAZARAIN, M. I.: *La Iglesia Parroquial de Elgoibar*, Ayuntamiento de Elgoibar, Elgoibar, 1985.

Larramendik Francisco gaztea Loyolako santutegian eginak zituen hargin lanengatik ezaguna zuela⁶⁴. Baina argi dago Agustin de Leiza eta Aita Larramendik Francisco de Ibero obraren arduraduntzat ezartzeko erabakiaren zergati nagusia Elgoibarko adibidea errepikatzeak desioa eta Andoaingo proiektuaren agintea tinko mantentzea zirela. Honen harira, Loiolako santutegiko obraren erregistrotan Franciscoren presentziaren beharakada progresibo bat antzeman daiteke 1756an bere izena betirako desagertzen den arte, Andoaingo egitasmoa martxan jarri zen urte berdinean hain zuzen ere⁶⁵.

Iruditu dezakeenaren kontra, Elgoibarko eredia ez zen proiektu unitario bat, garaiko arkitektura eta kultura baloreen emaitza zuzena, gure herrialdean errotuta zegoen eliza tipologia baten baitan aurrera egin zuen eraikuntza prozesu oso luze baten emaitza baizik. Proiektu honen oinarri tipologikoak gure herrian ohikoak diren latindar gurutze forma, oinean kokatutako dorrea eta kanpo espazio estali bat zuten elizak ziren⁶⁶. Huts egindako lehen saiakera baten ondoren 1646. urtean eraikitzen hasia, Lucas Longasek eginiko hirugarren proiektu baten baitan eraiki zen azkenik haren egitura nagusia. 1716an inauguratuta, Ignacio de Ibero arkitektoak segidan eraldatu zuen jatorrizko eraikin hau, oinetan kokatutako dorrearen gainean kanpandorre berri bat eraikiz eta alboetako arkupeak gehituz. Azken hauek, Francisco de Iberok egokitu eta eraiki zituen Andoaingo elizaren lanak hasi berri zituen momentuan, 1750 eta 1766 urteen artean hain zuzen ere⁶⁷. Elgoibarko elizan eginiko zenbait eraldaketa, sakristiaren edota portikoen erremateen eraikuntza, Andoaingo elizaren eraikuntzarekin bat egin zituen⁶⁸.

Paradoxikoki, Andoaingo orubeak proiektua baldintza handirik gabe eta askatasun osoz antolatzeke eskaintzeko zituen ezohiko aukerak, gure arkitektoak esku askoren ondorengo eraldaketen emaitza zen eredu baten ezaugarri orokorrak jarraitzeko erabakiarekin errotik moztu ziren⁶⁹. Abside poligonal batean bukatzen ziren latindar-gurutze formako nabeen bolumena kanpoaldeko forma errektangeluar baxuago baten barrenean inskribatzen ziren. Perimetro honen bi aldeak, portiko gangadun batzuekin eta sakristiaren espazioekin osatzen ziren. Elizaren oinean nabarmenduta, kanpandorrearen bolumena proiektuaren erremate eta erreferentzia nagusi zen, Elizaren nagusitasun berriaren irudi eta komunitatearen ikur berri bilakatuz. Hain zuzen ere, hiribilduko erdigunearen mugarri berri eta erreferentzia-ardatz nagusi bilakatu zen elizaren kanpandorrea. Aldi berean, ingurutik hiribilduaren irudia bereiziko zuen elementu nagusitzat ezarri zen⁷⁰.

64 ASTIAZARAIN, M. I.: "La Iglesia de San Martín de Andoain", *Agustin de Leyza, el bienhechor indiano*, Andoaingo Udala, Andoain, 1994, 110-111. orr.

65 EGUILLOR, J. R.: "Los maestros Ibero de Azpeitia en la construcción del Santuario de Loyola", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, Tomo 43, n.º 1-4, 1987, 291 or.

66 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, 660-661. orr.

67 Elgoibarko San Bartolome elizaren eraikuntza prozesuarentzak, ikusi: *IBÍDEM*, 409-596. orr.

68 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, 215-216. orr.

69 *IBÍDEM*, 616. or.

70 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, 430. or.

5. plano. San Martin elizaren oin nagusia. Aritz Díez Oronoz.

Plano n.º 5. Planta principal de la iglesia de San Martin. Aritz Díez Oronoz.

en 1716, fue modificada nuevamente por Ignacio de Ibero, que transformó la torre a los pies con un nuevo campanario y añadió los pórticos laterales, adaptados y construidos entre 1750 y 1763 por su hijo Francisco, cuando éste ya había empezado a trabajar en la iglesia de Andoain⁶⁷. Algunas intervenciones puntuales en el edificio, como la planificación de la sacristía o el remate de los pórticos, los realizaría nuestro arquitecto paralelamente a la construcción del templo andoaindarra⁶⁸.

Paradójicamente, la oportunidad de construir en Andoain un templo sin necesidad de adecuarse a construcciones precedentes se vio lastrada por la decisión del arquitecto de reproducir los rasgos básicos de un proyecto que era fruto de intervenciones sucesivas, realizadas por varias manos y no siempre coherentes entre sí⁶⁹. El volumen de las naves en cruz latina, con un ábside poligonal, quedaba englobado dentro de un rectángulo exterior más bajo, rodeado por los dos pórticos abovedados en los flancos y los espacios de la sacristía en la cabecera. La torre, destacada a los pies de la iglesia, remataba el conjunto y constituía el principal elemento de referencia del edificio, signo de la nueva preeminencia de la Iglesia y nuevo emblema de la comunidad; un hito que se convirtió en el eje referencial del nuevo centro de la villa y elemento identificativo de su imagen desde el exterior⁷⁰.


El espacio interior del templo quedaba organizado por una única nave longitudinal de tres tramos prácticamente iguales, un coro elevado a los pies, dos transeptos poco profundos de un único tramo, un crucero de planta cuadrada con una cúpula muy rebajada y una cabecera ochavada, ligeramente más estrecha que la nave. Al exterior, los cinco tramos de los pórticos exteriores flanqueaban la nave central sin ajustarse a la estructura principal de las naves interiores, con sus arcos


67 Para el proceso de construcción de la iglesia de San Bartolome de Elgoibar, ver: *IBÍDEM*, pp. 409-596.

68 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, pp. 215-216.

69 *IBÍDEM*, p. 616.

70 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, p. 430.





6. eta 7. irudiak. Nabeko gangaren eta trantseptuko kupula beheratuaren xehetasunak. Aritz Díez Oronoz.

Imágenes n.º 6 y 7. Detalles de la bóveda de la nave y cúpula rebajada del transepto. Aritz Díez Oronoz.

y nervios dispuestos de forma independiente a los contrafuertes. Para evitar contradicciones entre los arranques de los contrafuertes de las naves y la estructura de los pórticos, un segundo muro exterior más bajo, de la altura de los pórticos, engrosaba la base formando un cierre continuo que regularizaba los alzados laterales en su parte inferior. Entre el muro principal de las naves y este segundo muro exterior quedaba un espacio libre por el que transitan —emparedados y atravesando el espesor de los contrafuertes— la escalera longitudinal de acceso al coro y la escalera de caracol de subida a las cubiertas. La cabecera quedaba englobada por las salas destinadas a las sacristías y dependencias de la iglesia. Todas ellas con bóvedas de crucería, el espacio situado justamente tras el eje central del ábside se destinaba a una pequeña sala cubierta por una bóveda ovalada a modo de camarín.

Los cambios planteados al modelo de origen, sobre todo en lo que respecta al interior de la iglesia, inclusive la solución poligonal del ábside que estaba condicionada por la arquitectura del retablo, no hicieron más que acentuar el carácter inmovilista del edificio. La comparación con el ejemplo coetáneo de la iglesia de San Pedro de Eskoriatza (1759-1768), construida por su amigo Martín Carrera —que peritó incluso algunas partes de la obra de Andoain— deja en evidencia esta distancia entre la arquitectura de Francisco de Ibero y el barroco tardío clasicista que comenzaba a anticipar la arquitectura neoclásica que acabaría siendo impulsada desde la Academia⁷¹. Otras obras coetáneas de M. Carrera, como la iglesia de San Pedro de Pasaia (1763-1774) muestran esta resistencia de Francisco hacia la síntesis de las formas que venía anticipando la llegada del Neoclasicismo. Este segundo edificio, siendo también heredero directo del recién construido templo donostiarra —como analizaremos a continuación en el proyecto andoaindarra—, discurría en

71 ARRAZOLA, M. A.; "El Arte Barroco... *op. cit.* p. 295; ASTIAZARAIN, M. I.; "Puntos de encuentro... *op. cit.*, pp. 30-31.

Tenpluaren barrualdea hiru tarte ia berdinez osatutako luzerazko nabe bakar batez dago egituratua. Nabearen oinean koru garai bat dago, alboetan tarte estu bakarreko transeptu bi, kupula oso beheratu bat duen oin karratuko gurutzadura bat erdian eta erremate modura nabea baino zertxobait estuagoa den abside oktogonal bat. Kanpoaldeko bi portikoen tarteak barnealdeko arku eta nerbioen egituraketak kanporatzen dituen horma-bularrekiko libre kokatzen dira, haien berezko egituraketa eta ordena sortuz. Elizaren nabea eta portikoen egiturak dituzten ordena ezberdinen arteko kontraesan hauek saihesteko, horma-bularren lodiera hartzen duen bigarren horma baxuago bat dago, portikoen atzealdean kokatuta eta fatxadaren oinen lodiera berdintzen duena. Bi hormen artean izkutatuak eta horma-bularren lodiera zeharkatuta, koruaren mailara iristeko eskailera eta alboetako estalkietara heltzeko eskailera kiribila kokatzen dira. Absidearen forma oktogonalaren basea sakristiaren eta elizaren beste zenbait gelen espazioak inguratzen dituzte. Azken hauek gurutzeria-gangez estaliak badaude ere, absideren erdigunearen atzean kamarin modura kokatzen zen gela txikia ganga obalatu batez estaltzen da.

Elgoibarko elizaren ereduari egindako eraldaketek, gehien bat barrualdeko espazioari eta erretaula zaharraren kokapenak baldintzatzen zuen absideari dago-kionez, eraikinen izaera inobilista areagotu zuten. Iberoren proiektua Andoaingo elizaren garaikidea den Eskoriatzako San Pedro elizarekin alderatuta (1759-1768) nabariak dira gure arkitektoaren arkitektura ikuspuntu barrokoak garai haietan barroko klasizista berriak bermatzen ari zen arkitektura neoklasikora helduko zen trantsizioarekiko zuen aldea. Andoaingo obren zenbait peritazio egin zituen eta Iberoren lagun zen Martin Carrerak eraikitako proiektua bazen ere, bi eraikinen artean alde handia dago⁷¹. Gure eliza bere garaikidea den M. Carreraren Pasai San Pedroko elizarekin (1763-1774) alderatuta ere, gure arkitektoak Neoklasizismoaren formak aitzinatzen zituen formen sintesiaren aurka eginiko erresistentzia nabarmentzen da. Bigarren eliza hau ere Donostian eraiki berria zen tenpluaren oinorde zuzena bazen ere —segidan jorratuko dugun gai bat— Francisco de Iberok Andoainean ezarri zuen espazio-ideiatik norantza guztik aurkako batean garatzen zen⁷².

Eskoriatzako eta Pasaiako barrualdeen kasuan mende amaierako espazio neoklasikoetatik gertu dagoen formen sintesi eta lengoaia argiago baterantz hurbiltzen bada, Franciscok Andoainean lengoaia guztiz apaindu bat eta Berpizkundeko erai-kuntza tradizioaren oinorde ziren gurutze-gangak aukeratu zituen tenplua egituratzeko. Elgoibarko eta nagusiki Eskoriatzako zutabe eta gangek duten geometria zorrotzaren lekuan, ordena oso nabarmenak dituzten zutabe batzuetan bermatutako ganga nerbiodunak daude Andoainean. Ebazpen hau oso gertutik ezagutzen zuen Donostiako Santa Maria elizaren barrualdetik hartu zuen Franciscok, bere

71 ARRAZOLA, M. A.; "El Arte Barroco... *op. cit.* 295 or.; ASTIAZARAIN, M. I.; "Puntos de encuentro... *op. cit.*, 30-31 orr.

72 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, 638. or.

una dirección completamente opuesta a la idea espacial implantada por Francisco de Ibero en la iglesia de San Martín de Andoain⁷².

Mientras que en los casos de Eskoriatza y Pasaia el espacio interior transita hacia una síntesis de las formas y una clarificación del lenguaje que anticipa los interiores neoclásicos de finales del siglo, Francisco retoma en Andoain un lenguaje ornamentado y una construcción a base de bóvedas de crucería herederas de la tradición constructiva renacentista del país. A las severas geometrías de los pilares y bóvedas vaídas de Elgoibar y principalmente de Eskoriatza, le corresponden en Andoain unas bóvedas nervadas sobre pilares de órdenes marcados. Francisco tomó esta solución del interior de la iglesia de Santa María de San Sebastián, otra obra que conocía también en detalle, pues acababa de dirigir la finalización de la arquitectura interior siguiendo las trazas de sus predecesores⁷³. Sin embargo, lejos de acercarse a este segundo modelo, Francisco reemplazó la claridad formal y espacial del modelo elgoibartarra, la claridad geométrica de sus muros, pilares y las superficies lisas de sus bóvedas por un interior definido por las geometrías fragmentadas de los arcos y nervios de las bóvedas donostiarras.

A la iglesia andoaindarra le faltaba amplitud para poder alcanzar la majestuosidad de la *hallenkirche* donostiarra que Francisco buscaba replicar. Contenidas entre los muros laterales que ceñían la planta en cruz latina de la iglesia, la expresión espacial de las bóvedas y la imagen de sala hipóstila por el conjunto de los pilares de orden jónico de Santa María de Donostia quedaba limitada al reducido espacio de la nave central y el transepto. Por ello, era necesario realizar una adaptación que Francisco llevo a cabo empotrando los pilares en los muros laterales y reduciendo el volumen de sus órdenes y la densidad de la decoración, principalmente en el vuelo de las cornisas y relieve de basas y pedestales. El interior quedaba definido por una bicromía más marcada que señalaba las geometrías generales del edificio: pilares, arcos y nervios de las bóvedas en sillería, y enlucido blanco para el resto de superficies de muros y plementerías. El orden jónico del modelo se sustituía por una interpretación personal del orden dórico, más adecuado a la advocación del templo, de un aspecto más austero para evitar recargar el espacio interior. La tracería de las bóvedas de la nave central, transepto y presbiterio se unificaban, con una geometría de terceletes, ligaduras y tracería en forma de cuadrifolio con circunferencia interior ligada. En el crucero, una bóveda hemisférica muy rebajada y con radios pareados —heredera directa del templo donostiarra— cerraba el espacio circular de la cornisa soportada por pechinas en sillería⁷⁴.

Más allá de estas adaptaciones, el interior andoaindarra mantiene estilemas característicos de las arquitecturas de los Ibero. La más singular y propia, los arcos

72 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, p. 638.

73 ASTIAZARAIN, M. I.: *La Iglesia de Santa María de San Sebastián*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1989, p. 33.

74 ASTIAZARAIN, M. I., ARRAZOLA, M. A., MORENO, M.: *Euskal Artearen Historia. Barrokoa I Gipuzkoan*. Kriseilu: Donostia, 1991, p. 30.

aurrekoen trazak jarraituta haren barrualdeko arkitektura bukatua berri baitzuen Andoaingo proiektua hasi zuenean⁷³. Hala eta guztiz ere, lehenengo eruedetara gerturatu beharrean, Franciscok eredu elgoibartarraren argitasun formala eta espaziala —haren hormen, zutabeen eta ganga leunen zehaztasun geometrikoa—, Donostiakoaren arku eta nerbioen geometria zatikatuaren baitan zehaztutako barrualde batetik eraldatu zuen.

Andoaingo elizari zabaltasuna falta zitzaion Franciscok errepikatu nahi zuen Donostiako *hallenkirche* efektua lortzeko. Elizaren gurutze latindar forma hartzen zuten hormen arteko espazio estuan ahokatuak, Donostiako Santa Mariaren espazio-adierazpenak eta areto hipostilo zabalaren izaera lortua, gure elizako erdiko nabe eta transeptoen espazio estuaren barnera mugatuta egokitu behar zen. Hargatik, Franciscok jatorrizko ereduari zenbait eraldaketa egin behar izan zizkion: zutabeak alboetako hormetan sartzen ziren haien ordenen bolumena eta dekorazioaren dentsitatea murriztuz, erlaitzen hegala eta harroin eta zutoinen erliebetan nagusiki. Tenpluaren barrualdea arkitekturaren geometria orokorra nabarmentzen duen bikromia baten bidez zehazten da: zutabe, arku eta gangen nerbioen harlandua agerian utziz, gainerako hormen eta gangen betegarrien azalerek zituzten luzitu txuriaren gainean nabarmentzen dira. Ereduko zutabeen ordena jonikoa gure arkitektoak eginiko ordena dorikoaren eraldaketa pertsonal batez aldatu zuen. Ordena hau egokiagoa zen eliza zuzendua zegoen santuaren izaerarentzat. Aldi berean, apaindura gutxiago duen ordena izanik, barrualdeko espazioa ez zen beteegia gelditzen. Gure arkitektoak gangen geometria bateratu zuen, tertzeleak, loturak eta barrualdean borobil loturadun baten inguruan adostutako petalo laukoitz forma zuen geometria emanda. Gurutzaduran, harlanduzko lau petxina eusten duten erlaiz borobil baten gainean sostengatua, Donostiako elizaren oinordeko zuzena den nerbio binatuak eta perfil oso behekatuko ganga hemisferiko bat dago⁷⁴.

Eraldaketa hauetatik haratago, San Martin elizaren barrualdea Ibero arkitektoen bereizgarri diren keinuak antzeman daitezke. Guzti hauetatik berezko eta bereziena, perfil eliptiko baten traza hartzen duten hormen aldeko gangen arkuak. Ebazpen hau oso arraroa da gure inguruko eraikuntzetan eta Donostiako tenpluaren eraikuntzan eztabaida handia sortu bazuen ere, Ibero aita semeak defendatu eta ezartzea lortu zuten⁷⁵. Haien arkitekturen bereizgarri dira ere zutabeen frisoen erritmoa zehazten duten lore-motiboak dituzten kontsolak, Andoainen kasuan zutabeen gainean binatu gabe erabiltzen direnak. Azkenik, Donostiako barrualdearekin dauden parekotasun nabarmenenak aldare nagusiak duen plintoaren forma eta gurutzaduran dagoen perfil oso behekatuko gangak giltzarrian duen egurrezko lore-eskultura zintzilikatuak dira.

73 ASTIAZARAIN, M. I.: *La Iglesia de Santa María de San Sebastián*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1989, 33. or.

74 ASTIAZARAIN, M. I., ARRAZOLA, M. A., MORENO, M.; *Euskal Artearen Historia. Barrokoa I Gipuzkoan*. Kriseilu: Donostia, 1991, 30 or.

75 *IBÍDEM*, 42. or.

fajones laterales contruidos con un perfil elíptico, una solución constructiva poco común que creó controversia durante la construcción del templo donostiarra y que tanto Ignacio de Ibero como su hijo, Francisco, defendieron y consiguieron imponer⁷⁵. También las ménsulas con motivos florales que ritman los frisos sobre las columnas, otra contribución de Ignacio de Ibero que Francisco hereda y reutiliza en el interior de la iglesia de Andoain, esta vez únicamente sobre los pilares y sin parearlas. Por último, tanto la forma del plinto del altar como la cúpula de perfil muy rebajado en el transepto, decorado incluso con una clave pinjante en madera dorada del crucero, resultan las analogías más directas con el interior donostiarra.

2.2.1. La torre-campanario

De todas las partes del edificio, la torre-campanario es la más sobresaliente y la que da sentido a todo el conjunto, encarnando los aspectos simbólicos del edificio y significando su encaje urbano. En el terreno de lo religioso, como signo de la nueva preeminencia de la Iglesia y en el ámbito civil, como nuevo emblema de la comunidad, como hito esencial en la imagen de la villa desde el exterior y eje referencial del nuevo centro ciudadano⁷⁶.

El campanario forma parte también de otro de los tipos edilicios más interesantes de la arquitectura vasca, “rasgo genuino de su cultura y paisaje” en palabras de Chueca Goitia⁷⁷. Es además, uno de los elementos de más fortuna dentro de la obra de Francisco de Ibero, en las que se expresó de un modo más libre y expresivo el sentir barroco de nuestro arquitecto. Construidas a modo de un gran sagrario de piedra elevado sobre un esbelto pedestal, a menudo una estructura preexistente —una torre medieval o la base de un campanario renacentista— estos campanarios señoreaban sobre el territorio, caracterizando el *skyline* con estas agujas distintivas de las villas vascas. El modelo de todas ellas se remontaba a las torres herrerianas del Monasterio del Escorial. Adaptadas tras varias generaciones de arquitectos entre los siglos XVII y XVIII, tomaron una estructura propia justamente durante esta segunda mitad del siglo. Francisco de Ibero fue uno de sus mayores protagonistas, impulsando su arquitectura hacia unas formas barrocas que con él tomarán su máxima expresión. Este *canto del cisne* del barroco vasco coincidió con el momento en que otros contemporáneos suyos, como su amigo Carrera orientaban la arquitectura vasca —y con ella sus genuinos campanarios— hacia las formas neoclásicas de las que conservamos también ejemplos notables.

75 *IBÍDEM*, p. 42.

76 ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, p. 430.

77 CHUECA GOITIA, F.: *Historia de la Arquitectura Occidental VII. Barroco en España*. Madrid: Dossat, 1985, p. 138.



8. irudia. Andoaingo ikuspegia Goiburutik, San Martin eliza goialdean dagoelarik. A.U.A., F.7.1/34.

Imagen n.º 8. Vista de Andoain desde Goiburu, con la iglesia de San Martin en alto. A.M.A., F.7.1/34.

2.2.1. Kanpandorrea

Francisok diseinatutako kanpandorrea da eraikin guztitik gailentzen den zatia, eraikinaren alde sinbolikoak bereak eginda, elizaren hiri-kokapena bermatu eta multzo guztia bateratzen duena. Arlo erlijiosoan Elizaren nagusitasuna adierazita eta esparru zibilean Andoaingo gizataldearen ikur modura, hiribilduko egiazko funtsezko mugari eta erdigune berriaren ardatz bilakatu zen kanpandorrea⁷⁶.

Elizaren kanpandorrea beste euskal arkitektura-tipologia interesgarrietariko baten parte da, Chueca Goitiaren hitzetan “bere paisaia eta kulturaren egiazko bereizgarri” den arkitektura baten partaide⁷⁷. Francisco de Iberoren obraren kontestuan arrakasta gehien duen arkitekturetako bat da gainera, haren arkitektura barrokoaren izaera modu libre eta bizienean adierazi ohi zen eraikin mota.

⁷⁶ ARTAMENDI, E.: *op. cit.*, 430. or.

⁷⁷ CHUECA GOITIA, F.: *Historia de la Arquitectura Occidental VII. Barroco en España*. Madrid: Dossat, 1985, 138. or.



9. irudia. Kanpandorrea kokatzen den elizaren altxaera nagusia. Aritz Díez Oronoz.

Imagen n.º 9. Kanpandorrea kokatzen den elizaren altxaera nagusia. Aritz Díez Oronoz.

El punto de partida fue nuevamente el campanario de la iglesia de San Bartolomé de Elgoibar. Francisco había participado activamente en su diseño y construcción, presentando modificaciones al proyecto de su padre, con un pedestal más elevado y dinámico que resaltaba la verticalidad de la torre. Había dirigido su construcción hasta su terminación en el año 1758, momento en el que firmaba los pliegos para el templo de Andoain⁷⁸. Por tanto, resulta lógico que este edificio estuviera muy presente durante el proceso de diseño del campanario andoaindarra, que era el primero que Francisco diseñaba por vez primera de forma autónoma con sus propias trazas.

En el caso de nuestra torre-campanario, Francisco desplegó un lenguaje más contenido y austero que se enmienda con unas formas más articuladas y expresivas que ensalzan la verticalidad y dinamismo del conjunto. Una de los mayores aciertos en la adaptación del modelo se da en la articulación entre la fachada principal y la base del campanario. Esta parte ya estaba construida cuando los lbero tomaron las riendas de la obra de Elgoibar y por tanto, era uno de los elementos que Francisco tuvo que repensar sin las restricciones de su anterior experiencia.

⁷⁸ ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, p. 99.

Askotan lekuan zeuden dorreek bermatutako oinarri segailen gainean ezarritako harlanduzko sagrario handi baten modura eraikiak —jatorriz Erdi Aro edota Berpizkundeko dorreak izan ohi zirenak— kanpandorre hauen forma inguruko lurraldean nagusitzen zen, euskal hiribildu eta herrien *skylinea* orratz berezi hauen bidez bereiziz. Guztien oinarritzko eredia Eskoliareko Monastegiaren dorre herriarriak ziren. XVII eta XVIII mendeen artean lan egin zuten arkitekto belaunaldiek egokituak, mende honetako bigarren erdian hartu zuten preseski haien forma propioena. Francisco de Ibero izan zen mugimendu honen protagonista nagusietakoa, kanpandorre hauen forma barrokoak gure lurrian hartuko zuten espresioa goreneraino garatuz. Euskal barrokoaren *beltxargaren kanta* hau bere garaikideek —lagun zuen Carrera adibidez— euskal arkitektura forma neoklasikorantz bideratzen zuten momentu berean jazo zen. Kanpandorreena ez zen salbuespena izan eta hargatik, arkitektura neoklasikoaren kanonak jarraituta eraikitako adibide bikain ugari konserbatzen dira baita ere.

Elgoibarko San Bartolome eliza izan zen berriz ere gure kanpandorrearen jatorritzko eredia. Francisko bere diseinu eta eraikuntzan buru-belarri ibilitakoa zen. Bere aitaren proiektuari zenbait eraldaketa proposatzera ausartu bazen ere, dorrearen altuera nabarmentzen zuen oinarri dinamikoago eta altuera handiagoko bat diseinatu. Elgoibarko obraren zuzendaritza 1758an bukatu zuen, kanpandorrearen lanak behin-betiko bukatu eta Andoaingo lanen baldintza-agiriak sinatu zituen urte berean⁷⁸. Hortaz, zentzuzkoa dirudi hasieratik bere kabuz sortu zuen Andoaingo kanpandorrearen diseinu prozesuan Elgoibarko ereduak eragin handia izana.



10. eta 11. irudiak. Kanpandorrearen lehen gorputzako xehetasunak: beheko hormen ordena jonikoa eta hiribilduko armarría. Aritz Díez Oronoz.

Imágenes n.º 10 y 11. Detalles del primer cuerpo del campanario: orden jónico de los muros pantalla y escudo de la villa. Aritz Díez Oronoz.

⁷⁸ ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, 99. or.

Francisco introdujo en la torre-campanario de Andoain dos muros curvos a modo de pantallas laterales que extienden su influencia hacia los porches laterales. Dos pilastras cajeadas a cada lado, situadas sobre un elevado plinto, con capiteles jónicos y entablamento completo partido en el centro definen las geometrías de estas dos alas, reforzando la posición central del arco del porche cubierto de la entrada y del balcón sobre ménsulas con su respectiva puerta. Esta suerte de muro-pantalla cóncavo-convexo articula el ascenso del cuerpo central de la torre con la horizontalidad de los porches. Dos estrechos arcos opacos completan el espacio restante para cubrir el ancho de la nave central, ocultando los espesos muros macizos que arriostan los costados de la torre. Los dos estrechos pasillos con bóvedas de cañón horadados en la masa de estos macizos son la única concesión que incorpora Francisco de Ibero en el edificio a un lenguaje formal esencial próximo a los cambios que se estaban dando en la arquitectura de su época.



12. eta 13. Irudiak. Kanpandorrearen gorpuzt nagusiko xehetasunak: idulkiko lorontzia eta kanpaien-tzako arkuak. Aritz Díez Oronoz.

Imágenes n.º 12 y 13. Detalles del cuerpo de campanas: florón del pedestal y arco para las campanas. Aritz Díez Oronoz.

El cuerpo de torre se estrecha y ochava progresivamente en su ascenso hasta la base del cuerpo de campanas. A la primera mitad inferior le sigue un segundo cuerpo prismático de aristas ligeramente ochavadas en cuyo centro destaca el antes mencionado balcón con su respectiva puerta, rematada por el espléndido escudo barroco de la villa. La espalda de este prisma vertical de la torre se enlaza con el cuerpo de la nave con dos muros inclinados sobre el remate de la iglesia, a modo de medios frontones engalanados con esbeltos florones en ambos ángulos de la nave central. Las volutas laterales del orden inferior enmarcan la centralidad de este segundo cuerpo prismático, definido en sus flancos por dos pilastras lisas que siguen la vertical del orden inferior. Ambas pilastras se rematan con un capitel dórico de molduras muy prominentes cuyo perfil se extiende por el alzado de la torre formando un entablamento arqueado flanqueado por dos medias cornisas curvas terminadas en volutas.

Franciscok lengoia neurritsu eta zorrotzago bat erabili zuen gure kanpandorearen, dorrearen bertikaltasuna eta dinamismoa goratzen zituzten bolumena eta formen artikulazio eta adierazpen landuago batzuk erabiliz ordainean. Eraldaketa trebeena elizaren fatxada nagusiaren eta kanpandorrearen oinaren arteko artikulazioan gauzatzen da. Elgoibarko kasuan zati hau Ibero arkitektoek lanen zuzendaritza hartu zutenean jada eraikia zegoen egitura zen eta hortaz, Franciscok bere kabuz zuen esperientziari heldu gabe birplanteatu behar izan zuen elementu nagusia zen.

Andoaingo kanpandorrearen oina alboetako atarietaraino helarazteko, Franciscok pantaila modura antolatzen ziren horma makurrak eraiki zituen bere oinarrien bi aldeetan. Bi hegal hauetako bakoitza alboetan kokatutako plinto baten gainean eutsitako ordena jonikoko bi pilastra kajeatuen eta taulamendu oso batez egituratzen dira. Bien artean, fatxadaren erdialdean kokatutako ataria estaliaren arku eta haren gainean kokatutako balkoi mentsuladuna kokatzen ziren, taulamendua erditik. Pantaila-horma ahur-ganbil hauek behealdeko portikoen horizontaltasuna eta dorrearen bertikaltasunaren arteko giltzarri dira. Dorrearen eta nabe nagusiaren arteko zabaleren artean dagoen artea beteta, erliebean nabarmendutako bi arku itsuk atzean dauden dorrea eusteko alboetako horma sendoak ezartzen dituzte. Bi horma sendo hauek kanoi-ganga batez ezartuta dauden bi korridore estuz zeharkatuta daude. Korridore hauek dira Francisco de Iberok eraikin osoan garai hartako arkitektura errotik eraldatzen ari zen formal-lengoaiarekiko egiten duen keinu sotil bakarra.

Dorrearen bolumen trinkoaren angeluak forma oktagonala hartzen dute gailurrerantz heltze bidean. Oinarrietako lehenengo erdiaren gainean, beheko ordenaren erlaitzak aldeetan dituen kiribilen artean, bigarren prisma forma duen bolumena bat gainjartzen da. Bolumena honen ardatz nagusia, lehen adierazitako balkoia, bertara irtetzeko atea eta hiribilduaren armari barroko aparta ezartzen dira. Gorputz honen atzealdeak nabe nagusiaren hormekin bat egiten du. Lotura hau, kanpoko ertzetan lore-ontzi formako ornamentu birekin apainduta dagoen frontoi-erdi baten itxura hartuta inklinatzen diren bi hormen bidez bermatzen da. Dorrearen aurrealdea, beheko ordenaren ardatzak jarraitzen dituzten alboetako bi pilastra dorrikoen bidez egituratzen da. Bi pilastra hauen kapitelen moldurek taulamendu baten modura dorrearen altxaeratik zabaltzen dira, behean kokatutako armariaren kokapena inguratzen duen arku beheratu baten forma hartuz eta bi angeluetan bi erlaitz-oker erdi sortuz.

Kanpandorrearen lehen gorputz honen altuera, elizaren nabe nagusiaren maila berdinean kokatzen den erlaitz batek mugatzen du. Angelu bakoitzaren gailurrean, beheko dorrearen eta goiko kanpandorrearen gorputzen arteko ordenak adosten dituzten mentsula bina kokatzen dira. Mentsulek, profil zuzen eta makurrak tartekatzen dituzten forma bereizgarri batzuk dituzte, hormatik erliebean apenaz gailentzen direnak.

6. plano. San Martin elizaren altxaera nagusia. Aritz Díez Oronoz.

Plano n.º 6. Alzado principal de la iglesia de San Martin. Aritz Díez Oronoz.


La cumbre de este primer cuerpo de la torre esta rematada por una cornisa análoga a la que recorre el perímetro de la iglesia, situada a la misma altura. Dos anchas ménsulas planas con un característico frente de perfiles rectos y curvos, apenas destacados del muro y situados en cada ángulo de la torre, señalan el acuerdo entre este cuerpo inferior y el prisma ochavado del cuerpo de campanas superior.

El volumen del campanario, de forma ochavada y estructurado mediante órdenes apilastrados en sus cuatro caras principales, está compuesto por un sólido pedestal, un prisma central de caras cajeadas y arcos para las campanas, y una cúpula rematada por una linterna.

La articulación entre la base cuadrada de la torre —ligeramente ochavada— y el propio ochavo del campanario se realiza de un modo más natural que en Elgoibar, con un pedestal menos aparatoso, sin curvas pronunciadas, en el que jarrones planos, situados en los cuatro ángulos, se extienden en su parte inferior hasta enlazar con la basa continua del pedestal. La cornisa del pedestal, con una voluminosa moldura en bocel, se arquea en los ochavos para enmarcar el remate de los jarrones y se adelanta en los costados de los frentes para marcar la posición de sendas ménsulas que soportan las volutas del cuerpo central en correspondencia con los ejes de los órdenes de pilastras.



El cuerpo central se estructura con unas pilastras cajeadas con capitel dórico cuyo perfil hace nuevamente la función de arquitrabe, extendiéndose por todo el perímetro formando un entablamento que corona el ochavo. La cara de las pilastras se extiende en su base sobre las ménsulas del pedestal, formando volutas sobre las que apoyan unos pequeños florones exentos. Los huecos de las campanas se formalizan con un arquitrabe en arco de medio punto inscrito en los cajeados de las caras centrales.

En la coronación del campanario Francisco vuelve a distanciarse del modelo algoibarra. Desaparecen el friso con triglifos y la balaustrada sobre la cornisa de la torre, y se sustituyen por un friso plano y un plinto opaco arqueado en los centros



9. plano. San Martin elizaren
ekialdeko altxaera. Aritz Díez Oronoz.

Plano n.º 9. Alzado Este de la iglesia de
San Martin. Aritz Díez Oronoz.






0m 5m 10m 20m

7. plano. San Martin elizaren iparraldeko altxaera. Aritz Díez Oronoz.
Plano n.º 7. Alzado Norte de la iglesia de San Martin. Aritz Díez Oronoz.



8. plano. San Martín elizaren hegoaldeko altxaera. Aritz Díez Oronoz.
Plano n.º 8. Alzado Sur de la iglesia de San Martín. Aritz Díez Oronoz.



10. plano. San Martín elizaren luzerazko ebaketa. Aritz Díez Oronoz.

Plano n.º 10. Sección longitudinal de la iglesia de San Martín. Aritz Díez Oronoz.

Kanpandorrearen bolumenaren forma oktogonala, bere lau alde nagusietan pilastrez osatutako ordena batez egituratua, idulki sendo batez, azalera kateatuak eta kanpaintedzako arkuak dituen erdialdeko gorputz batez eta linterna batekin errematatua dagoen kupula batez osatua dago.

Forma oktogonal oso sotila duen dorre karratuaren eta kanpandorrearen forma oktogonalaren arteko trantsizioa Elgoibarko kasuan baino modu naturalagoan bermatzen da. Gure eraikinaren idulkia finagoa da, kurbadurarik gabekoa eta lau angeluetan, idulkiaren oin jarraia hartzeko zabaltzen diren pitxar formako eskultura lau batzuk dituenak. Bozel forma duen tamaina handiko erlaitzak arku forma hartzen du pitxarrek goialdean dituzten esferak inguratzeke, eta pilastren ardatzen kokapenarekin bat egiten duten adeetako ertzetan aurreraturen da erdiko gorputzaren kiribilak eusten dituzten mentsulen forma hartzeko.

Kanpandorrearen erdiko gorputza pilastra doriko kajeatu baten bidez egituratzen da. Haien kapitelen profilak berriz ere arkitrabe modura zabaltzen dira bolumenaren errematea bermatzen duen taulamendu jarrai bat osatuz. Pilastra nagusi hauen azala beheko gorputzaren mentsulen gainetik zabaltzen da, gainean lorontzi batzuek dituen kiribil batzuk sortuz. Kanpaintedzako leihoak azalera nagusien kajeatuan inskribatuak dauden erdi-puntuko arku forma hartzen duen arkitrabe baten bidez irekitzen dira.

Errematean berriz ere, Elgoibarko ereduaren planteamendua eraldatzen du Franciscok. Ereduko friso triglifoduna eta erlaitzaren gaineko balaustrada, friso lau batez eta erdietan arku forma hartzen duten plinto opaku batez aldatzen dira. Haien gainean, kupularen azala eta azken hau inguratzen duten lorontziak kokatzen dira. Kasu honetan kupularen profila goragunerik gabekoa da eta linterna apalago bat dauka, lau tarteetakoa, Elgoibarkoak dituen zortzien aldean. Kanpandorrearen erremate den linterna hau oinarrian kiribil zorrotz batzuk dituzten pilastra binatuen bidez egituratua dago. Goialdean, kupulaxo hemisferiko bat eta burdinezko gurutzaren oinarria hartzen dituen harlanduzko esfera daude.

2.3. Elizaren eraikuntza: obra azkar bezain problematikoa

Komitenteak eliza eraikitzekeo desioak 1756ko urrian helarazi zituenetik 1759ko martxoan obra hasi zen arte pasatako bi urteetan, Aita Larramendik, Agustin de Leizaren konfiantzazko kudeatzaile modura jardunda, egitasmoaren nondik norakoak zuzentzen lan erabakiorra egin zuen. Aurreko atalean azaldu den modura, Francisco de Ibero kontratatzekeo ideia jesuitak berak sustatu zuen modu honetan konfiantzazko arkitekto baten bidez obraren garapena kontrolpean izateko⁷⁹. Apezpikutzaren lizentzia eta eskuragai zegoen dirua jasoko zuten

79 *IBÍDEM*, 228. or.

sobre el que apoya directamente la cúpula. Varios florones rodean el arranque de la cúpula, que en Andoain es menos peraltada y está rematada por una linterna más sencilla, de cuatro vanos frente a los ocho de Elgoibar. La linterna está ritmada por pilastras pareadas ornamentadas con unas volutas afiladas en su base y rematada por un cupulín hemiesférico rematado por una esfera elevada sobre la que se sitúan la veleta y la cruz de forja.

2.3. La construcción del edificio: una obra rápida pero problemática

Desde el primer contacto con el comitente en octubre de 1756 hasta el inicio de la obra en marzo de 1759 pasaron dos años de gestiones en los que el Padre Larramendi, hombre de confianza de Agustín de Leiza, jugó un papel determinante dirigiendo los planes de la obra. Como se ha señalado, la idea de contratar a Francisco de Ibero partió del jesuita, que garantizaba así su control sobre la ejecución de la misma con un arquitecto de total confianza⁷⁹. Mientras que la licencia del obispado y la elección de los representantes para percibir los caudales consignados se gestionaron rápidamente, entre enero y julio de 1757, se tardó año y medio más para que el proyecto se abordara definitivamente⁸⁰. Francisco de Ibero formalizaba el contrato para la ejecución de la obra en noviembre de 1758, con las trazas ya levantadas y fijando su inicio en el mes de marzo o abril de 1759⁸¹.

Todo indica que las obras discurrieron con celeridad: en noviembre de 1760 Francisco señala que ya estaba construyendo la fábrica de la nueva iglesia, trabajando probablemente en la excavación de los cimientos⁸². Dadas las complicaciones que surgieron posteriormente por el asentamiento del edificio, debidas a los diferentes tipos de suelo sobre los que apoya el edificio, la excavación de las zanjas debió de costar más tiempo y trabajo del esperado. Cuatro meses después, en marzo de 1761, se registra una petición de madera para andamios con el fin de que “se empiece el asiento de la obra de la dicha nueva iglesia”⁸³. En este momento debió comenzar la construcción de los cimientos y a alzarse los muros, pues se repiten durante la primera mitad del año las referencias a madera y andamios para la obra⁸⁴. Para finales de año los muros de cantería debían de estar ya bastante alzados pues en la autorización de los caudales del 30 de noviembre de 1761 se indica que la obra “se haya muy adelantada a dirección del maestro Don Francisco de Ibero”⁸⁵.

79 *IBÍDEM*, p. 228.

80 AHPG.T., 2.729, 53-58.

81 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, p. 229.

82 A.M.A.; Libro de Actas, 1760, fol. 160.

83 *IBÍDEM*, fol. 176

84 Se trata de una resolución de abril en contra de facilitar más madera a Francisco por haber escasez en el municipio y otra concesión favorable en junio de 1761 por “50 pies de roble para andamios”. A.M.A.; Libro de Actas, 1761, ff.117v, 178.

85 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, p. 228.

ordezkarien aukeraketa azkar egin bazen ere, 1757ko ekaina eta uztailaren artean, proiektuari behin-betiko heldu zitzaion arte urte eta erdi bat gehiago pasa zen⁸⁰. Eraikinaren trazak jada eginak zituela Francisco de Ibero 1758ko azaroan sinatu zuen obraren exekuzio kontratua, lanen hasiera 1759ko martxo eta apirilaren artean zehaztuz⁸¹.

Datu guztiek lanak azkar joan zirela aditzera ematen digute. Franciscok 1760ko azaroan eliza berriaren obra martxan zegoela azaltzen duenean, seguruenik zimenduen lubakien hondeaketa lanak oraindik amaitzeaz zeuden⁸². Hurrengo urteetan eraikina bermatzen zen lur mota ezberdinek sortu zituzten asentu arazo nabarmenengatik antzeman daiteke lubakien hondeaketa espero baino denbora eta lan gehiago eskatu zituela. Lau hilabete geroago, 1761ko martxoan, "el asiento de la obra de la dicha nueva iglesia" hasteko beharrezkoak ziren andamioentzako egur eskaera erregistratua dago⁸³. Momentu hartan hasi ziren zalantzarik gabe zimenduen eta horma nagusien eraikuntza, urtearen lehen erdian sarri errepikatzen baitira andamioak eraikitzeke egurren eskaera erreferentziak⁸⁴. Urte amaierarako harlanduzko hormak altuera nahikoa izan behar zuten, 1761eko azaroaren 30ean obra "se haya muy adelantada a dirección del maestro D. Francisco de Ibero" esaten da eta⁸⁵.

Momentu honetan azaldu ziren oraindik ere eraikinaren egonkortasuna arriskuan jartzen duten lehenengo egitura-arazoen seinaleak. Elizaren bedeinkapena egitea erabakitzen den bilera berean eraikina ikuskatzea eskatzen da "mediante la ruina que se ha experimentado en la obra"⁸⁶. Kasu honetan, obraren peritazioa Martin Carrera beasaindarrak egiten zuen eta 1762ko martxoan helarazi zitzaion Franciscori⁸⁷. Zoritxarrez desagertua dagoen dokumentu bat denez, ezinezkoa zaigu momentu hartan agertu ziren pitzaduren ezaugarriak jakitea. Obra iraun bitartean egonkortasun arazo hauek etengabe jazo ziren eta mendeetan zehar larriagotuta, gaur egun ere zaharberritze lanak eskatzen dituzte. Urte bereko ekainean Martin Carrerak aurkitu ez den bigarren peritazio bat egin zuen, azken hau ematen duenez, elizaren hormak bukatu ziren momentuan egindako ohiko errebisio bat⁸⁸.

80 GPAH.T., 2.729, 53-58. orr.

81 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos...* op. cit., 229. or.

82 A.U.A.; Akta liburua, 1760, fol. 160.

83 *IBÍDEM*, fol. 176.

84 Herrian zegoen egur gabeziak bultzatuta Franciscok 1761ko apirilean eginiko eskaeraren kontrako ebazpen bat eta ekaineko beste "50 pies de roble para andamios" en onarpenak dira. AndUA.; 1761ko Akta Liburua, 117v, 178. ff.

85 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos...* op. cit., 228. or.

86 A.U.A.; 1744-1767ko Akta Liburua, LH38bis, 207. f.

87 A.U.A.; 1762ko Akta Liburua, 203v. f.

88 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos...* op. cit., 231. or.

Es en este momento cuando empiezan a aparecer los primeros problemas estructurales que aún hoy en día siguen lastrando el edificio. En la misma sesión durante la que se acuerda bendecir la iglesia se pide que se reconozca el “edificio y fábrica mediante la ruina que se ha experimentado en la obra”⁸⁶. En este caso, es el beasaindarra Martin Carrera quien perita la obra con una declaración que se le entrega a Francisco en marzo de 1762⁸⁷. Un documento, por desgracia desaparecido, que impide conocer la naturaleza exacta de las grietas que se abrieron en este momento. Este problema será una constante durante la ejecución que se agravará con el paso de los siglos y requerirá constantes restauraciones que todavía siguen en marcha. En junio del mismo año Martin Carrera realizaba una segunda peritación que tampoco se ha encontrado. En este segundo caso, parece que rutinaria, probablemente en el momento en que habían sido completados los muros⁸⁸.

El control total de los caudales que tenía Francisco de Ibero desató el primer conflicto con el Ayuntamiento que *motu proprio*, quizá motivado por estos primeros problemas en la construcción, intentó racionar en tres partes el dinero gestionado por el arquitecto. Tras varias tensas reuniones, una carta del Padre Larramendi volvió a imponer su orden, obligando a que Ibero continuara gestionando la totalidad de los caudales⁸⁹. En este contexto debe inscribirse también el acto de toma de posesión que realizaron el mayordomo, el síndico y el procurador de la fábrica dos meses antes de este hecho⁹⁰, paseándose por el interior de la obra y lanzando algunas piedras para simbolizar públicamente su posesión de la iglesia, frente una gestión de la obra que claramente estaba en manos de los jesuitas a través del Padre Larramendi e Ibero.

A pesar de los conflictos internos, los problemas surgidos durante la construcción y la muerte del D. Agustín de Leiza y Latijera el 19 de agosto de 1763, la obra siguió avanzando. En abril de 1762 se tasaron y compraron los terrenos situados a espaldas de la iglesia, en febrero de 1764 estaba finalizado el coro y en abril del mismo año Francisco de Ibero realizaba un reconocimiento que nos da una imagen fija de la obra: se había alzado el cuerpo de la torre hasta el nivel del pedestal del cuerpo de campanas, inclusive la bóveda y los pretilos del atrio, el suelo del campanario estaba concluido y su escalera de madera en funcionamiento⁹¹.

Nuevamente “se nota algún vicio en la fábrica de la nueva iglesia” en abril de 1764⁹². Probablemente en el cuerpo de la torre, donde todavía son evidentes las grietas verticales en sus caras laterales, tanto en la base como en el encuentro con

86 A.M.A.; Libro de Actas 1744-1767, LH38bis, f.207.

87 A.M.A.; Libro de Actas 1762, f.203v.

88 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, p. 231.

89 A.M.A.; Libro de Actas 1744-1767, LH38bis, ff.205v-206v.

90 AHPG.T., P. 2.732, f.203v.

91 A.M.A.; Libro de Libramientos, Años 1774-1775.

92 A.M.A.; Libro de Actas 1764, LH38Bis, 239v.

Francisco de Iberok zeraman diruen kontrol zorrotzak udalaren lehenengo mesfidantzak sortu zituen momentu honetan. *Motu propio*, beharbada eraikuntzan sortu ziren lehen arazo hauek bultzatuta, arkitektoak kudeatzen zuen dirua hiru zatitan mugatzea erabaki zuen udalbatzak. Zenbait bilera tirabiratsuen ostean, Aita Larramendiren gutun batek bere agintea inposatu zuen berriz ere, Iberok diru osoa berriz ere kudeatzeko ahalmena lortuz⁸⁹. Kontestu honetan ulertu behar dira jazoera hau baino bi hilabete lehenago obraren otsein-buruak, sindikoak eta prokuradoreak egin zuten jabetza-ekintza⁹⁰. Elizaren barrualdetik publikoki pasiatu eta zenbait harri lurrera botata, hiru arduradunek dudarik gabe Larramendiren eta Iberoren aginpean eraikitzen ari zen elizan zituzten eskubideak aldarrikatu zituzten.

Barne gatazkek eta 1763ko abuztuaren 19an jazo zen Agustin de Leiza y Latijeraren herioza arren, eraikuntza lanek martxa onean jarraitu zuten. Eliz atzeko zenbait orube 1762an tasatu eta erosi ziren, 1764ko otsailean korua bukatua zegoen eta urte bereko apirilean Francisco de Iberok lanen informe bat idatzi zuen, eraikuntzaren egoeraren datu zehatzak ematen dizkiogunak: dorrearen egitura kanpandorrearen idulkiaren mailaraino zegoen eraikia —atariaren ganga eta kare-lak barne—, kanpandorrearen zorua bukatua zegoen eta haren egurrezko eskailera erabilgarri baita ere⁹¹.

1764ko apirilean berriz ere “se nota algún vicio en la fábrica de la nueva iglesia”⁹². Mugimendu hauek dorrearen gorputzean eman ziren seguru aski. Bere pisuagatik asentatu eta kanpoalderaka okertuta, oraindik argi ikusten dira dorrea nabeen hormetatik banatze bidean bi alboetan ireki zituen pitzadurak⁹³. Dorrearen beheko gorputzaren eta elizaren hormen erlaitzen arteko loturan dagoen altueren arteko alde nabarmenak eta horrek behartu zituen aparejuaren moldaketak momentu honetan gertatu ziren asentamentu diferentzialak larriak izan zirela seinalatzen dute. Jazoera honi buruz hitz egiten duten dokumentuen hizkerak obraren arduradunen kezkak handiak zirela aditzera ematen du. Hargatik, Francisco de Iberori premiazko obraren azterketa bat egitea eskatu zitzaion, azkenean Martin Carrerak egin zuena⁹⁴. Geroz eta argiago zegoen arazo hauek obraren eraikitze eta lehortze prozesuan naturalak ziren asentamendu eta mugimenduetatik haratago zihoazela. Honen harira, duela bi hamarkada Ramón Ayerza arkitektoak eginiko zaharberrikuntza lanetan egiaztatu zen eraikinaren bi fatxaden zimenduek lur oso ezberdinetan bermatzen direla —oso agerian dagoen kare-harri substratu batean

89 A.U.A.: 1744-1767ko Akta Liburua, LH38bis, 205v-206v. ff.

90 GPAH.T., p. 2.732, 203v. f.

91 A.U.A.: 1774-1775ko Igorpen Liburua.

92 A.U.A.: 1764ko Akta Liburua, LH38Bis, 239v. f.

93 Nabearen fatxada nagusia kanpandorrearen basearekin lotu eta ixten duten hormen duten barnealderako desbideraketa proiektuaren jatorritik dorrearen egiturak izan zezakeen mugimendu hau eusteko pentsatua dagoela ematen du. Kanpandorrearen egiturak plazarantz eginiko mugimenduak eta nabeen bi horma hauek kontra eginiko indarrak bi zatien arteko loturan dauden pitzadura bertikalen arrazoi nagusia izan daiteke.

94 A.U.A.: 1764ko Akta Liburua, LH38Bis, 239v. f.

los muros de la nave, donde la torre parece haberse desplomado hacia el exterior, separándose del muro de la nave⁹³. Las discontinuidades que tiene el aparejo de los muros de la iglesia para acordar la cornisa con el nivel más bajo del remate de la torre en su encuentro meridional indican también que el asentamiento diferencial producido por el peso del campanario debió ser importante y que se produjo durante la construcción de la obra. El tono de los documentos estudiados indica que la preocupación era mayor en este caso, pidiéndosele a Francisco de Ibero un reconocimiento de urgencia para la que se requerirá nuevamente la presencia de Martín Carrera⁹⁴. Comenzaba a quedar en evidencia que los problemas no derivaban de los movimientos naturales producidos durante el alzamiento y secado de la fábrica. A este respecto, las restauraciones emprendidas hace dos décadas por el arquitecto Ramón Ayerza desvelaron que las cimentaciones de las fachadas apoyan sobre terrenos muy diferentes —una roca caliza muy superficial en el caso de la mitad meridional y hasta ocho metros de suelos blandos en la mitad septentrional— lo que provoca fuertes asientos diferenciales que se agravan con unas masas pesadas como es la de la torre⁹⁵.

En el año 1764 se toman decisiones importantes para la articulación entre el templo y la plaza. La memoria que escribe Francisco de Ibero para establecer los puntos en los que debía concluirse la obra hace hincapié en estos aspectos, señalando la importancia de allanar los terrenos circundantes para “despexar el embarazo que le hace cansando a la Iglesia en su vista desde la parte de Villabona” y sugiriendo que estos terrenos debieran ser adquiridos por el Cabildo para evitar que futuras construcciones privadas ocultaran la vista del templo. Se señala la necesidad de construir las casas del sacristán y del rector en estos terrenos y se indica que serán necesarios otros dos años para la finalización de las obras⁹⁶.

Continuando con los pormenores de la obra, en febrero de 1765 comienzan a cerrarse las bóvedas de las naves e instalarse los elementos muebles del interior, como el órgano, los púlpitos, la carpintería de las puertas y los retablos⁹⁷. Con la muerte del Padre Larramendi el 29 de enero de 1766 desaparece uno de los principales actores e impulsores del proyecto, principal responsable de que la empresa llegara a término sin contradicciones, superando las dificultades y luchas de influencia que hubieran sin

93 La sensible inclinación en planta hacia el interior de la iglesia que tienen los muros de la nave que enlazan con la parte trasera de la torre parece haber sido diseñada desde el inicio de la obra para contrarrestar este efecto de desplome del campanario hacia el exterior. El asentamiento del campanario hacia la plaza y la resistencia opuesta por estos dos costales inclinados podría estar en el origen de las fuertes grietas verticales que se aprecian en la unión entre las dos partes.

94 A.M.A.; Libro de Actas 1764, LH38Bis, 239v.

95 En la memoria se especifica que la cimentación tiene una profundidad de 90cm y está realizada en piedra caliza. En la parte meridional los muros están levantados directamente sobre el sustrato rocoso, mientras que en la mitad norte no se aprecia ninguna adaptación al cambio brusco del terreno. AYERZA, R.; Memoria del Proyecto de Consolidación del Pórtico Nordeste. A.M.A., AG1899/13.

96 AHLoy.; Papeles del Pader Larramendi, Carpeta 4. Visto en: TELLECHEA, J. I.; “El Jesuita M. de Larramendi”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos de País*, n. 22, Abril de 1966, pp. 345-47.

97 LECUONA, M.: *op. cit.*, pp. 19-20.

hegoaldekoaren kasuan eta zortzi metrotako sakonera hartzen duten lur bigunetan iparraldekoaren kasuan— bereziki pisutsuak diren elementuetan larritzen diren asentamendu diferentzial handiak ematea erraztuz⁹⁵.

Francisco de Iberok 1764. urtean eraikuntza bukatzeko aurreikusten zituen azken bi urteetan egin beharrekoak zehazteko idatzi zuen txostenean, elizaren eta plazaren arteko artikulazioa ebazteko garrantzitsuak ziren erabakiak hartu zituen. Bertan, “despexar el embarazo que le hace cansando a la Iglesia en su vista desde la parte de Villabona” helburuarekin eliza inguratzen zituzten lurrak berdintzeko garrantzia nabarmentzen zuen. Aldi berean, hegoaldeko orube hauetan etorkizunearan eraiki zitezkeen etxe pribatuek sortu zezaketen arazoak saihesteko, lur hauek elizainaren eta errektorearen etxeak eraikitzeko eskuratzeko beharra azaltzen zuen⁹⁶.

Eraikuntza lanen nondik norakoekin jarraituz, 1765an nabeetako gangak ixteko eta barrualdeko altzarien instalazio lanei —organoa, pulpituak, atea eta erretaulen zuraje lanak— hasiera eman zitzaien⁹⁷. Bitartean, Aita Larramendiren heriotza jazo zen 1766ko urtarrilaren 29an. Berekin batera, egitasmonean bultzatzaile nagusietako bat desagertu zen. Egiaz, proiektuaren arrakasta bermatu zuen aktore nagusia, proiektua hutsaldu zezaketen zailtasun ekonomiko edota barne botere borrokak menpe hartuta, elizaren eraikuntza kontraesanik gabe amaitu izanaren arduradun nagusia izan zen Larramendi⁹⁸. Jesuitaren heriotzaren ondoren berak proiektuaren kontra zeuden zenbait sektore asetzeko eginiko zenbait promesen hausteak gatazka batzuk sortu baitzituen ere, eraikuntza lanak martxa onean jarraitu zuten⁹⁹.

Elizainaren etxea eraikitzeko egitasmoaren lehen erreferentziarekin batera, 1766ko apirilean plazaren harlanduzko horma, karela eta harmaila eraikitzeko erabaki hartu zen. Urte honetako uztaila eta azaroko erregistroek, kanpandorrearen obrak bukatu ezean, eliza “en toda forma y con la debida decencia” eraikia dagoela esaten da¹⁰⁰. Elizaren eraikuntza lanak bukatuak bazeuden ere, Buruntzako auzoko bizilagunek eliz zaharra behin betiko lekuz aldatzeko eginiko ahaleginek eliz berriaren bedeinkapena gauzatzeko zenbait zailtasun sortu zituen. Elizaren bedeinkatze ekitaldia egiteko ebazpena 1767ko urtarrilaren bateko bilkura osoan

95 Zaharberrikuntza proiektuaren txostenean esaten da kareharriz eraikitako zimenduek 90zmtako sakonera dutela. Hegoaldeko hormetan harriaren substratuan bermatuak daude zuzenean eta iparraldeko beste erdian aldiz ez da lurzorua eraldaketara egokitzeko moldaketarik nabari. AYERZA, R.; Memoria del Proyecto de Consolidación del Pórtico Nordeste. A.U.A.: AG1899/13.

96 LoyAH.; Aita Larramendiren Paperak, 4. Karpeta. Hemen ikusia: TELLECHEA, J. I.; “El Jesuita M. de Larramendi”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos de País*, n. 22, Abril de 1966, 345-47. orr.

97 LECUONA, M.: *op. cit.*, 19-20. orr.

98 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos... op. cit.*, 233-234. orr.

99 La principal será el abandono del proyecto para una Casa de Misericordia en el solar de la antigua iglesia, una promesa que Larramendi hizo a los vecinos de Buruntza y que finalmente quedará sin construirse a pesar del derribo del antiguo templo. *IBÍDEM*, 234. or.

100 A.U.A.: 1764ko Akta Liburua, LHBis, 274, 282, 287. ff.

duda desvirtuado el proyecto⁹⁸. La obra siguió su curso, a pesar de que el fallecimiento del jesuita originó diversos conflictos por el incumplimiento de algunas promesas realizadas por el padre para contentar a las partes que se opusieron al proyecto⁹⁹.

En abril de 1766 se decide finalmente la construcción del muro, pretil y escalinata de la plaza, y se cita por primera vez la idea de construir la casa del sacristán. Las referencias de julio y noviembre de ese año nos dan cuenta de que la obra de la iglesia ya estaba ejecutada “en toda forma y con la debida decencia” a falta únicamente de las obras del campanario¹⁰⁰. A pesar de que la iglesia estaba ya finalizada, las resistencias de parte de la población a cambiar la iglesia de Buruntza por la de la Plaza Nueva ocasionó dificultades para bendecir el templo. Esta resolución se tomó definitivamente en ayuntamiento general del 1 de enero de 1767, confirmando trasladar la “Iglesia Parroquial de San Martín a la que nuevamente se ha fabricado en la plaza pública que fue para la perpetua memoria de dicha Iglesia vieja y de los antepasados que en ella están enterrados”¹⁰¹. Se intuyen en este fragmento las motivaciones naturales y en gran medida humanas de esta resistencia por dejar un lugar de culto tan arraigado, en el que los andoaindarras tenían enterrados a sus ancestros. Sin embargo, con un nuevo templo que respondía a una necesidad urbana y representativa también natural y necesaria para el nuevo contexto social y urbano de la villa, tratándose además de un edificio que estaba construido prácticamente en su totalidad, esta conclusión era ya inevitable.

Podemos afirmar que para el año 1768, momento en el que se colocan los jarrones de piedra del atrio, la parte pública de la plaza estaba ya concluida¹⁰². En enero de 1770 se comienza el enlucido de las paredes interiores de la iglesia, sacristía y de los dos porches laterales, de los que no han aparecido referencias directas hasta este momento pero que debieron construirse de forma coordinada con los muros principales de las naves¹⁰³. En este momento se está construyendo la cúpula del campanario y se aprovecha para desmontar y trasladar las campanas de la antigua iglesia a la nueva. Al mismo tiempo, se sigue trabajando en la talla, montaje y dorado de los altares interiores, la adaptación del retablo renacentista recolocado en el ábside y en la adecuación del suelo de madera para sepulturas¹⁰⁴.

98 ASTIAZARAIN, M. I.: *Arquitectos guipuzcoanos...* *op. cit.*, pp. 233-234.

99 La principal será el abandono del proyecto para una Casa de Misericordia en el solar de la antigua iglesia, una promesa que Larramendi hizo a los vecinos de Buruntza y que finalmente quedará sin construirse a pesar del derribo del antiguo templo. *IBÍDEM*, p. 234.

100 A.M.A.; Libro de Actas 1764, LHBis, ff. 274, 282, 287.

101 A.M.A.; Libro nuevo de Elecciones, LH111, f. 74v.

102 LECUONA, M.: *op. cit.*, pp. 25-27.

103 *IBÍDEM*, pp. 28.

104 A.M.A.; Libro de Libramientos, Alo 1772.

hartu zen, hiribilduko eliza nagusia “a la que nuevamente se ha fabricado en la plaza pública” aldatzeko behin-betiko erabakia hartuz, “que fue para la perpetua memoria de dicha Iglesia vieja y de los antepasados que en ella están enterrados”¹⁰¹. Aipamen honetan nabariak dira andoaindarrek haien asabeak ehorztuta zituzten tenplu zaharraren kokapena uzteko zituzten erreparatu natural eta giza-tiarak, gaur egungo testuingurutik ere guztiz ulergarriak direnak. Hala ere, bere osotasunean eraikia zegoen tenplu berri baterekin, hiribilduko gizarte eta kontestu urbano berriari erantzuna ematen zion eraikina amaiturik, ordurako amaiera hau saihestezina zen.

Esan dezakegu 1768. urterako, elizaurreko hormaren harlanduzko lorontziak jartzen diren momenturako, plaza publikoaren lanak bukatuak zeudela¹⁰². 1770ko urtarrilean nabeen, sakristiaren eta aldeetako elizpeen hormen luzitua hasten da. Alboetako elizpeei buruz hitz egiten duen lehenengo erreferentzia bada ere, aspaldi nabeen hormekin bat eraikiak izan behar zuten¹⁰³. Momentu honetan, kanpandorrearen kupula eraikitzen den bitartean, eliza zaharrea zeuden kanpaiak tenplu berrira lekualdatzen dira. Aldi berean, lekuz aldatutako berpizkundeko erretaularen moldaketan, barnealdeko aldareen lanketan, muntai eta urretaketan, eta hilobien egurrezko zorua eraikitzeko lanetan jarraitzen da¹⁰⁴.

Kanpandorrearen eraikuntzak hartu zituen obraren azken urteetako hargintza lan gehienak. Azken urte hauetatik kontserbatzen ditugun erreferentziak oso aberatsak dira: materialen ordainketak, erabilitako harlanduen bolumenak, gurdinzainen eta hilero obran lan egin zuten langileen zerrendak ezagutzen ditugu¹⁰⁵. Izen guztietatik Francisco de Ugartemendia arkitekto andoaindarrarena gailentzen da, Pedro Manuel de Ugartemendia arkitekto neoklasiko famatuaren aita, obraren azken fasea Francisco de Iberorekin elkarren ondoan lan egin zuena. Azken urte hauetan proiektuak jasan zuen eraldaketa nagusia burutuko da: Franciscoren oniritziarekin, alboetako elizpeen arkuak inposten altuera hartzen zuten hormekin itxiko dira¹⁰⁶.

Francisco de Iberok kanpandorrean eginiko harlantza eta zurgintza lanak 1774ko apirilaren 6an ikuskatu zituen, tenpluaren obren lanen amaiera mugatuz¹⁰⁷.

Aldiz, gotortutako barrutiaren deskripzioan izendatzen den “casa seroral”-a errektorearen etxearekin bat egingo balu, ondoriozko dimentsioak peritazioetan eginiko balorazioetatik gertuago lirakeke. Kasu honetan gainera, plazaren inguruak zituen ezaugarri natural eta topografiarekin bat egingo luke, mendixkaren malda eta altuera desberdintasunekin, inguruan oztoporik sortzen ez zituzten landa eremuekin eta plazan zeuden eraikinen kokapen berarekin. Bigarren hipotesi hau XX. menderate tokian kontserbatzen ziren zenbait horma eta eraikuntzekin bat egiten du, zenbait ortoargazki eta argazki zaharretan erregistratuak gelditu direnak. Egia bada ere defentsa sistema hau karlistek hiribildua hartu zutenean desegin zirenaren ziurtasuna badugula¹³¹, logiko dirudi haien zenbait zati mantendu eta ondorengo partzelazioa mugatu izana, eraikitze lanetan guztiz lehengoratzea ezinezkoak ziren lur mugimendu eta hondeaketak eskatzen zituzten zimenduekin eta hormen oinarriekin bat behintzat, jabetzen arteko itxitura eta muga tanketa hartuz.

XX. mendeko bigarren erdian elizaren hegoaldeko orubean kokatzen ziren hormak, Egoabil eta errektoraren etxeak lotuta mendebalderantz hedatzen zen barruti bat osatzen zutenak, bigarren karlistadako gotorlekuaren horma-aztarnak izan daitezke. Hipotesi hau hegoaldeko lerrokaduran kokatzen ziren hormentzat fidagarriagoa da, bertan argazki zaharrek defentsa natural bat osatzen zuen altuera ezberdintasun bat azaltzen dute eta. Argazki historikoetatik ezagutzen ditugun beste hormek tenpluaren inguruko altuerak haien baitan hartzen zituen errektangelu formako barruti bat osatzen zuten. Argazkiak atera ziren urteetarako oso eraldatuak egon ahal baziren ere, nabarmendu behar da haien barruan defentsetatik kanpo nekez gelditu izan behar zuen ur-putzua kokatzen zela eta aldi berean, barruti honen muturra defentsen babesaren arriskuan jartzen zuen muino baten gaineraino iristen zela. Gainera, barruti errektangeluar honetan sartu zitezkeen bakarrik testuek deskribatzen duten “camastrón corrido de 70 metros de largo por dos de ancho”, plazaren luzera guztia hartuta ere kabitzen ez zen ohe jarrai bat baitzen¹³².

Errege bidearen alderantz, horma tarte motx batek Egoabil etxea udaletxearekin lotzen zuen. Bertan kokatu zen ziur asko testuetan “puerta del Sur” bezela izendatzen den 3 metrotako zabalera zuen atea, aldi berean Kale Nagusia babesten zuen danbor batez defendatua zegoena. Udaletxearen arku eta leihoak hormaturik, erdiko arkuaren zabalarekin bat egiten duen 2,8 metrotako burdinazko ate baten bidez sartu zitezkeen soilik eraikin barrura. Udaletxearen horma sendoek plazaren harlanduzko hormarekin lotzen ziren, haren eraikuntza trinkoa eta plazarekiko

131 MORAZA, BUCES, GARCÍA.: *op. cit.*, 39 or.

132 Bigarren hipotesi honen neurriak aztertuta, perimetroak 280 metrotako luzera izango zituen. Hormentzat 0,75 metrotako lodiera hartuz, erregistroen neurketetan ematen diren bolumenak betetzeko 4,10 metrotako hormak beharoko ziren. Altuera hau guztik bateragarria da argazkietan ikusi dezakegun Errektorearen etxeari txertatzen zaion hormarekin, gutxi gorabehera 3,75 metrotako altuera duena. Inguruko beste itxituren altuerak, 4,40 m elizpearen arkuaren altuerarentzat haien inposta arte eta 3,90 m udaletxearen arkuentzat, barruti gotortuak kontserbatzen ziren hesien antzeko luzera zuela egiaztatzen du. Balorazioan ematen den gezilehioen kopurua ere luzera honekin bat egiten du: arku eta leihoetan kokatzen ziren alde batera utzita, testuek deskribatzen dituzten 261 gezileihoak 1,20 metrotako tartearekin kokatu zitezkeen, momentu honetan eraikitzen ziren defentsa hormen tipologiarekin bat egiten duena guztiz.



13. plano. Plazaren gotorlekua hirugarren Karlistadan. Aritz Díez Oronoz.

(a) Udaletxea, bere arku eta lehoiak hormaturik, eta plazarantz irekitzen den burdinezko atarekin. (b) Hegoadeko atea Kale Nagusia defendatzen zuen danbor gezilehiodunarekin. (c) "Casa Seroral"aren hego-mendebaldeko danbor gezilehioduna. (d) Muros aspillerados del primer recinto. Lehenengo barrutiaren horma gezilehiodunak. (e) Ur putzua eta 70 metrotako luzera zuen ohearen kokapena. (f) Elizaren bigarren defentsa barrutia. (g) Elizaren alboa babesteko danbor gezilehioduna. (h) Elizainaren etxea. (i) Errektorearen etxea (j) Arrate etxea. (k) Egoabil Etxea.

Plano n.º 13. Fortificaciones de la plaza durante la Segunda Guerra Carlista. Aritz Díez Oronoz.


(a) Ayuntamiento, con su arquería y ventanas tapiadas y una puerta de hierro hacia la plaza. (b) Puerta del Sur con su tambor aspillerado defendiendo la Calle Mayor. (c) Puerta de Suroeste de la "Casa Seroral" con su tambor aspillerado. (d) Muros aspillerados del primer recinto. (e) Pozo de agua y posición hipotética del "camastrón corrido" de 70 m. (f) Segundo recinto fortificado de la iglesia. (g) Tambor aspillerado para cubrir la comunicación de la iglesia. (h) Casa del Sacristán. (i) Casa del Rector. (j) Casa Arrate. (k) Casa Egoabil.





3.4. La plaza a finales del siglo XIX

El plano municipal del año 1896 es el primer testimonio cartográfico detallado de la plaza y nos presenta una imagen clara de la misma a finales del siglo. Los restos del recinto defensivo podrían corresponderse parcialmente con los muros señalados en el plano, que aparecen ya transformados en muros divisorios entre los terrenos de los nuevos edificios construidos en el entorno de la plaza. Habían transcurrido escasos veinte años entre el final de la contienda pero son patentes las transformaciones derivadas del crecimiento demográfico y edilicio que se prolongó durante el siglo siguiente.



18. irudia. Andoaingo 1896. Urteko planoaren xehatasuna. A.U.A. 10 H/6.

Imagen n.º 18. Detalle del plano de Andoain de 1896. A.M.A. 10 H/6.

La antigua casa de Arrate se había derribado y sustituido por otro edificio situado en la posición que conocemos gracias a las primeras fotografías de la plaza. Desconocemos la fecha concreta del derribo y construcción del nuevo edificio¹³⁴. Sin embargo, su posición, tangente al muro de sillería que relacionaba el nivel inferior con el atrio de la iglesia, dejando abierto el lado septentrional de la plaza, sugiere que la intervención estuvo relacionada de algún modo con la idea ampliar el recinto hacia esta parte, una actuación que se llevaría a cabo pocos años más tarde al construir el frontón. Junto al camino se habían construido otros edificios, de los que no tenemos tampoco datos ciertos de su fecha de construcción: las dos casas de los números 1 y 2 de la calle mayor —hoy en día parcialmente conservados— y otras

134 No se ha localizado en el Archivo ningún expediente sobre la construcción del edificio.

sortzen zuen desnibela baliatuta kanpo perimetroa sendotzeko bazen ere, defentsen egituretan integratu zena. Plazaren horma honen gainean kokatutako hesia elizaren zabalera hartu arte luzatu behar zen behintzat. Eliza ere bigarren barne defentsa barruti bat osatzeko zegoen gotortuta, kanpoko hartuko balitz defendatzaileak haren barnean tinko eusteko pentsatuta alegia. Elizaren defentsa bermatzeko “la comunicación de la Casa Seroral con la Iglesia” babesten zuen hirugarren kubo bat zegoen, seguruenik arkupeen tarte bat hartuta hegoaldeko fatxadan txertatua zegoena. Elizpearen arkuak ixten zituzten horma hauek eraitsi baino lehenago xehetasunez azaltzen dizkiguten argazki zaharren faltagatik, ezin gara hipotesi sinesgarrienaren mailatik haratago joan.

Karlisten iritsierarekin suertatu zen estrategia militarren eraldaketa sakonak lurraldearen defentsa mendi eta altuera nagusietan eraikitako gaztelutxo, lubaki eta gotorlekuen eraikuntza sustatu zuen 1874ko martxoaren 1etik aurrera¹³³. Hargatik, antza denez ez ziren defentsa liberalen desegite prozesuan beste defentsa batzuen egokitze lanik egin herrigunean, eta gutxiago ere plazaren egituraketa eraldatzeko munta zuten defentsa sistema berririk eraiki. Eraiste lanak sistematikoak izan baziren ere, gatazka militarren lehenengo fasean zehar eraikitako defentsen arrastoek hurrengo hamarkadetako plazaren garapena baldintzatu zuten, XX. mendeko bigarren erdian oraindik ere nabariak ziren orubeen arteko mugei geometria berri bat gehituz eta lekuaren fisionomia behin-betiko eraldatuz.

3.4. XIX mende amaierako plaza

1896ko udal-kartografia da kontserbatzen dugun plazaren lehen testigantza grafiko xehatua eta bertan, plazak mende amaieran zituen ezaugarrien irudi argia helarazten zaigu. Karlistadetako defentsa murrueen arrastoak egiaz izan daitezke planoan nabarmentzen diren zenbait horma, lekuan eraikitako eraikin berrien lurra banatzen dituzten orubeen arteko hesi funtzioarekin ageri direnak. Karlistaden amaieratik hogeitau urte eskas pasa baziren ere, hiribilduak hurrengo mendean zehar biziko zuen hazkunde demografikoaren eta eraikuntza hedapenaren lehen arrastoak utzitako eraldaketak nabariak dira planoan.

Ordurako, Arrate etxe zaharra eraitsia zegoen eta plazaren lehen argazkietatik ezagutzen dugun etxe berri batek ordezkatzeko zuen. Ezezaguna zaigu etxe zaharraren eraispen eta berriaren eraikitze data¹³⁴. Hala ere, eraikin berriak duen kokapenarengatik, elizaurrea eta beheko plazaren artean kokatzen zen hormaren lerrokadura errespetatuta eta ondorioz plazaren iparraldeko aldea irekita utzita, esan daiteke lekuz-aldatzearen arrazoia urte gutxi geroago gauzatu zen frontoi berriaren egitasmoarekin lotua egon zela. Antzinako Errege Bidearen ondoan beste eraikin batzuk eraiki ziren, haien eraikuntza data zehatzak berriz ere ezagutzen ez ditugunak: Kale Nagusiko 1 eta 2 zenbakiko bi etxeak —gaur egun neurri batean

133 MORAZA, BUCES, GARCÍA.: *op. cit.*, 39-40 orr.

134 Ez da Artxiboan aurkitu eraikuntzarekin lotua dagoen txostenik.

dos casas frente a la plaza, las casas Iriarte mayor y menor (conocidas actualmente como Unanue y Elizondo), situadas al otro lado de la calle, hoy en día muy transformadas. Tanto el contexto de su construcción como su arquitectura sugiere que todas ellas fueron construidas en la última década del siglo, en un momento muy próximo a la realización del plano municipal de 1896.

La plaza se asemejaba ya a la imagen que nos muestran las fotografías más antiguas. El plano frontal del ayuntamiento tomado en 1917 no debía diferir en lo general del estado de la plaza a finales del siglo anterior¹³⁵. A pesar del mal estado de conservación que es notorio en las fotografías, los edificios monumentales que configuraban su límite y la forma de la plaza conservaban su estructura e imagen principal. El paso del tiempo, los cambios en los usos, costumbres y sobre todo el complicado transcurso del siglo había deteriorado considerablemente su arquitectura sin afectar en lo principal a la configuración urbana del lugar. En el caso del ayuntamiento, tenemos constancia del deficiente estado de conservación interior antes de los maltratos que sufrió a lo largo de este siglo¹³⁶, así como de algunas reformas realizadas en este periodo que no resolvieron el problema en su totalidad¹³⁷.

4. LA PLAZA CON FRONTÓN DEL SIGLO XX

El cambio de siglo comenzó con la construcción del primer frontón de la villa, que prolongó la plaza hasta la longitud que toma aproximadamente hoy en día¹³⁸. El derribo de la antigua casa de Arrate había abierto el camino para que el consistorio se planteara adquirir los terrenos adyacentes al camino, en la parte septentrional de la plaza. La compra de los terrenos no estuvo exenta de las habituales dificultades. La misiva que envió Clemente Balda a comienzos del año 1901 al consistorio con un boceto del proyecto ya señalaba que se había tratado la compra de los terrenos con la propietaria, Agapita Irazu, pero el alto precio solicitado obligó a realizar otra tasación en abril del mismo año. La oposición del arrendatario de la vivienda, que se veía perjudicado por la ampliación de la plaza y la sombra proyectada por los futuros muros del frontón, complicó aún más las gestiones para la compra, aplazando la autorización definitiva de la propietaria hasta junio de 1901¹³⁹.

Las obras del nuevo frontón —proyectado ya desde comienzos de año— debieron comenzar inmediatamente y realizarse con premura, pues el registro de final de obra está fechado el 29 de octubre del mismo año, apenas cuatro meses y medio después de la autorización.

135 A.M.A., Fuente: AGG, OA04054, © Indalecio Ojanguren (1916).

136 A.M.A., Libro nuevo de Elecciones, LH111, última elección registrada.

137 MENDILUZE, I.; *op. cit.*, p. 34.

138 CHAVARRI SARASUA, Juan Antonio; *op. cit.*, pp. 261-262; MENDILUZE, I.; *op. cit.*, p. 66.

139 A.M.A., 40H/7.

kontserbatuak daudenak— eta plazaren aurrean, errepidetik beste aldera kokatzen ziren Iriarte handi eta txiki etxeak (gaur egun Unanue eta Elizondo izenez ezagutzen direnak), gaur egun oso eraldatuak daudenak. Artxiboko daturik kontserbatzen ez baditugu ere, eraikin guzti hauen kontestua eta arkitekturengatik asmatu dezakegu mendeko azken hamarkadan eraiki zirela. Hortaz, 1896ko udal-kartografia egin zen momentutik oso gertu.

Momentu honetarako plazak argazki zaharrenak azaltzen diguten itxura hartua zuen. 1917ko udaletxearen aurretiko argazkiak helarazten digun plazaren ikuspegiak aurreko mendearen amaieran zuenaren oso antzekoa behar zuen¹³⁵. Eraikin publikoek kasu askotan egoera larrian mantentzen baziren ere, plazaren mugak, forma eta irudi orokorra mantentzen zen. Urteen poderioz, erabilera eta ohituren aldaketek azken mendeko jazoera larriek batez ere, haien arkitektura asko narriatu zuten, zorionez lekuaren hiri-egituraren funtsari eragin gabe. Udaletxearen kasuan, bere egoera azken mende honetan jasan zituen tratu txarrak baino lehenagotik desegokia zela zinez badakigu¹³⁶. Hamarkada hauetan zenbait erreforma egin baziren ere, ez zuten eraikinaren egoera kaxkarra funtsean aldatu¹³⁷.

4. XX. MENDEKO FRONTOIDUN PLAZA

Mende aldaketa, plazaren luzera gutxi gorabehera gaur egun duena arte zabaldu zuen hiribilduko lehen frontoiaren eraikuntzarekin hasi zen¹³⁸. Arrate etxe zaharraren eraistek, udaletxea plazaren iparraldean eta errepidearen ondoan zeuden lurrak eskuratzea bultzatu zuen. Orubeen erosketa udalak bultzatu bazuen ere, salerosketak zenbait zailtasun gainditu behar izan zituen. Clemente Baldak 1901. urtearen hasieran proiektuaren lehen zirriborroarekin batera bidalitako gutunean erosketaren nondik norakoak lurren jabearekin —Agapita Irazurekin— hitzartuak zeudela esaten bazuen ere, azkenean eskatutako diru munta handiak orubearen bigarren tasazio bat egitera behartu zuen Udala. Aldi berean, etxebizitzako maizterrak, plazaren luzapenak eta frontoiaren hormek bere erabilera pribatukoak ziren soroetan sortuko zituzten eragozpenengatik azaldutako arrangurak, salerosketaren gestioak zakartu zituen. Hargatik, jabearen behin-betiko baimena ez zen 1901ko ekaina arte iritsi¹³⁹.

Urtearen hasieran proiektatutako frontoi berriaren obrak, baimena eskuratu bezain laister hasi eta azkartasunez gauzatu behar izan ziren, obraren amaierako erregistroa urte bereko urriaren 29ko data baitu, baimena eskuratu eta lau hilabete eta erdi eskas ondoren.

135 A.U.A., Iturria: AGG, OA04054, © Indalecio Ojanguren (1916).

136 A.U.A., Hauteskundeen liburu berria, LH111, erregistratutako azken izendapena.

137 MENDILUZE, I.; *op. cit.*, 34 or.

138 CHAVARRI SARASUA, Juan Antonio; *op. cit.*, 261-262 orr.; MENDILUZE, I.; *op. cit.*, 66 or.

139 A.U.A., 40H/7.



19. irudia. Plazaren argazkia 1901. urteko frontoiarekin. A.U.A. 7706XX03, © Truchuelo.

Imagen n.º 19. Fotografía de la plaza con el frontón de 1901. A.M.A. 7706XX03, © Truchuelo.

18,75 metros de ancho del nuevo espacio de juego obligaron a nivelar el suelo, formando la amplia terraza que todavía se conserva al comienzo de la pendiente de la cuesta de Kaletxiki.

La construcción del frontón alargó considerablemente el espacio de la plaza baja, contraponiendo al eje transversal marcado por la iglesia un eje longitudinal mucho más pronunciado, presidido por la antigua fachada del ayuntamiento y los nuevos muros del juego de pelota en sus extremos. El dinamismo del espacio resultante resultaba realmente efectivo. A los dos referentes del lugar, el volumen cúbico del ayuntamiento y la esbelta torre-campanario, se le añadía un tercer espacio definido por el triedro del frontón, que proyectándose en tangencia al muro del atrio, extendía el vacío dejado por la antigua casa de Arrate a través del perfil curvo

La amplia documentación fotográfica conservada nos muestra claramente la disposición y forma del frontón construido, que difería del que se construyó nuevamente en los años 80 durante la restauración de la plaza. Se trataba de un frontón de pared izquierda cuyo frontis cubría toda la anchura de la plaza, con un ala corta en la parte derecha que cerraba el recinto en correspondencia con el muro bajo paralelo al camino. Los dos dibujos del proyecto conservados en el Archivo Municipal —el boceto antes señalado y un alzado de la pared izquierda— se corresponden en forma y dimensión con los muros del frontón que se construyó finalmente: los 31,2 metros de largo y


Kontserbatzen den argazki sorta zabalak eraiki zen frontoiaren kokapena eta forma argi eta garbi azaltzen dizkigute. Jatorrizko frontoi hau 80. hamarkadan berberaiki zen frontoi garaikidearen ezberdina zen: plazaren zabalera osoa hartzen zuen ezker paretako frontoi bat zen, errepidearekiko paraleloki hedatzen zen hormarekin bat plazaren barrutia itxiz, frontisaren eskuinean hegal-horma bat zuena. Andoaingo Udal Artxiboan kontserbatzen diren bi marrazkiak —lehen adierazitako zirriborroa eta ezker paretaren altxaera bat azaltzen dituztenak— forma eta dimentsiotan eraiki zen frontoiaren hormekin bat egiten dute. Pilotaleku berriaren luzerako 31,2 metroak eta zabalera 18,75 metroak orubea berdintzeko lanak eskatu zituen, alegia, Kaletxikik duen maldaren hasierarekin bat gaur egun ere hedatzen den terraza zabala eraikitzea behartu zuen.



20. irudia. Dantza talde bat Andoaingo Goikoplazan frontoia atzealdean dagoelarik. KFund, 17290708, © Ricardo Marín (1933).

Imagen n.º 20. Grupo de dantzaris actuando en la Goikoplaza de Andoain, con el frontón al fondo. KFund, 17290708, © Ricardo Marín (1933).

Frontoi berriarekin plazaren beheko luzearen eremua nabarmen handitu zen, elizak sortzen zuen zeharkako ardatzari, bere muturretan udaletxearen altxaera nagusiaren eta pilota jokoaren hormak zituen indar handiagoko luzerazko ardatz berri bat kontrajarriz. Aldaketa honen bidez espazioak hartzen zuen dinamikotasuna zinez eraginkorra zen. Tokiko erreferenteei —udaletxearen bolumena kubiko




14. plano. La Goikoplaza en torno al año 1950. Aritz Díez Oronoz.
 (a) Udaletxea. (b) San Martin Eliza eta elizaurrea. (c) Elizainaren etxea.
 (d) Errektorearen etxea. (e) Arrate etxea. (f) Egoabil Etxea. (g) Frontoia.

Plano n.º 14. Goikoplaza en torno al año 1950. Plaza 1950. urte inguruan. Aritz Díez Oronoz.

(a) Ayuntamiento. (b) Iglesia de San Martin y atrio. (c) Casa del Sacristán. (d) Casa del Rector. (e) Casa Arrate. (f) Casa Egoabil, (g) Frontón.







15. plano. Frontoia eraiki ondoren, plazak 1925. urtean zuen itxura azaltzen duen axonometria. Aritz Díez Oronoz.

Plano n.º 15. Axonometría con la reconstrucción de la plaza en 1925, tras la construcción del frontón. Aritz Díez Oronoz.

eta kanpandorrearen bolumena lirainari— frontoiaren triedroak osatzen zuen hirugarren espazioa gehitzen zitzairen. Elizaurrearen hormaren norabidea jarraituta, frontoiaren ezkerreko hormaren profil malguak Arrate etxe zaharrak utzitako hutsunea iparralderantz luzatzen zuen berriz ere, plaza berriaren muturrean, frontisaren eta bere eskuinaldeko hormen bidez biltzeko.

Argazki zaharrek lekuak izan zuen aldaketa sakonaren berri ematen digute. Honezkerok, gure plaza Euskal Herriko herri-plaza askoren ezaugarri diren triada honen bidez definitu zen, Andoainen bereziki, haien forma sinbolikoenetarikoa hartuz¹⁴⁰. Frontoiaren eraikuntzarekin gaur egun Andoaingo plazaren bereizgarritzat imajinario kolektiboan oraindik ere mantentzen diren hiru elementu hauen bidez osatua gelditu zen: ezkerertzik, eliza, udaletxea eta frontoia andoaindarrek igarri eta aitortzen duten hiri-multzo bateratu baten parte bihurtu ziren. Hiru arkitektura hauek eskubide osoz Goikoplazaren, hiribilduko espazio instituzional nagusiaren partaide zatiezintzat ezarri ziren, artxiboetako argazki ugari azaltzen diguten modura, hurrengo hamarkadetan ospatuko ziren festa zibiko, erlijioso eta kirol ekintza nagusien hiri-eszenatoki gizara.

Frankismoan eta trantsizioaren lehen urteetan jasan zituen tratuak lekuaren osotasunarentzat latzak izan baziren ere, zorionez —gure herriko panorama arkitetonikoan zorionezko salbuespena bada ere— urte gutxi geroago plaza berpiztu egin zen. Garai haietako garapen-plan urbanistikoan jarraibideak fidelki eta pentsamendu kritiko izpirik gabe jarraitu izanak, Andoainen ondorio larri eta atzeraezina utzi bazituen ere, plazaren suntsipen osotik gertu egon zirenak, M. Montserrat Ruiz Fabre arkitektoak proposatu zuen berreraikitze tipologikoak plazaren espazioa berreskuratzea lortu zuen.

4.1. Udaletxearen erreforma

Plazak azken hamarkadetan zehar bizi izan zituen argi-itzalak aztertu baino lehenago, lekuan egin ziren zenbait eraldaketa jorratu behar ditugu, hein handi batean 60. eta 70. hamarkadetakoko aldaketa handien atari modura ulertu daitezkeenak.

Mendeetan zehar udaletxean egin ziren zatikako konponketek eraikinaren jatorrizko antolamendu eta erabilerak aldatu zituzten. Eraldaketa hauek 1919an egin zen eskailera nagusiaren berreraikuntzarekin bukatu ziren, Miguel de Goenaga arotz donostiarrak eginikoa¹⁴¹. Hala ere, eraikin barruan elkarren ondoan zeuden erabilera anitzek —eskolak, espetxea, upeltegia eta udal langileen etxebizitzek— garai hartarako udaletxe batentzat desegokiak ikusten ziren arazoak sortzen zituzten. Gainera, eraikinaren egurrezko egiturak berak arazo larriak zituen, “en su parte superior, amenazando un desprendimiento del techo

140 CHAVARRI SARASUA, Juan Antonio.: *op. cit.*, 222 or.

141 A.U.A., 51H/7.

de su muro lateral para volver a recogerlo en su extremo con los quiebros del frontis y su ala derecha.

Las fotografías dan cuenta del cambio operado en el lugar, que terminó por definirse a través de esta tríada que caracterizó gran parte de las plazas rurales de Euskal Herria y que justamente aquí, en Andoain, tomó uno de sus formas más simbólicas¹⁴⁰. Con la construcción del frontón, la plaza de Andoain quedó configurada con los elementos que reconocemos y que perviven todavía en el imaginario local: iglesia, ayuntamiento y frontón formaron desde entonces parte de un mismo conjunto urbano reconocible y reconocido por los andoaindarras. Estas tres arquitecturas se instituyeron por pleno derecho como parte indisoluble del principal espacio de representación de la villa, Goikoplaza, escena urbana de los principales actos cívicos, religiosos y deportivos que se celebrarán durante las décadas siguientes, tal y como nos muestran las numerosas fotografías conservadas en los archivos.

El maltrato al que se vio sometido el lugar durante el desarrollismo del franquismo y en los primeros años de la Transición provocó una grave e irreversible desnaturalización, incluso destrucción del lugar, impulsado por el alienado afán de seguir sin espíritu crítico las nefastas pautas del desarrollismo urbanístico de la época. Por suerte —y como gran excepción dentro del panorama arquitectónico del país— la plaza volvió a resurgir pocos años después gracias a la reconstrucción tipológica propuesta por el proyecto de la arquitecto M. Montserrat Ruiz Fabré.

4.1. La reforma de la casa consistorial

Antes de pasar a estudiar las luces y sombras que caracterizaron las últimas décadas de la plaza es preciso señalar otros cambios operados en el lugar y que anticipan las fuertes transformaciones que se llevaron a cabo en la plaza durante los años 60 y 70 del siglo XX.

Los arreglos parciales que se habían realizado en el ayuntamiento habían alterado la distribución y los usos originarios del edificio. Estas transformaciones del edificio primitivo tuvieron término con la reconstrucción completa de la escalera principal del edificio en 1919, realizada por el ebanista donostiarra Miguel de Goenaga¹⁴¹. Sin embargo, los usos variopintos que coexistían en el mismo edificio —escuelas, prisión, bodegas, incluso viviendas para los empleados municipales— generaban problemas de uso que en la época se consideraron impropias de una casa consistorial. Además, la estructura del edificio tenía graves problemas “en su parte superior, amenazando un desprendimiento del techo de la escuela por la forma en la que están los solivos de madera”, según las palabras del mismo alcalde¹⁴². La planta segunda seguía manteniendo las estancias para el salón de

140 CHAVARRI SARASUA, Juan Antonio.: *op. cit.*, p. 222.

141 A.M.A., 51H/7.

142 ÍDEM, 51H/9.



16. plano. Plazaren altxaera orokorra 1925. urtean. Aritz Díez Oronoz.
Plano n.º 16. Alzado general de la plaza en 1925. Aritz Díez Oronoz.

de la Escuela por la forma en la que están los solivos de madera”, alkateak berak utzitako idatzi bat aintzat hartuta¹⁴². Eraikinaren bigarren solairuak udalbatzaren areto nagusia eta bulegoak mantentzen bazituen ere, lehenengo solairuan kokatutako eskola eta langileen etxebizitzek, bertan ikasten zuten umeen eta bizi ziren langileen familiako kideen hemendik harakoek funtzio publikoan eragozpen nabariak sortzen zituzten¹⁴³.

Azken hau izan zen 1926an hasi zen udaletxearen erreforma egiteko proiektuaren txostenean argudiatzen zen arrazoi nagusietako bat, Luiz Elizalde arkitektoaren hitzetan “radical transformacion” hitzekin izendatzen dena¹⁴⁴. Proiektuaren nondik norakoak aztertzerakoan argi gelditzen da esku-hartzea antolamendu aldaketa bat baino haratago joan zela:

“La transformación que se propone consiste en bajar el piso segundo al principal y viceversa, dándoles las alturas que a cada cual corresponde [...]. Se trasladan en fachada principal los huecos de piso segundo al primero y se proyectan dos escudos a izquierda y derecha del central, que llevarán las armas de la villa”¹⁴⁵.

Erreformak eraikinaren desegite eta berregite radikal bat suposatu zuen. Lanen ondorioz, udaletxea bere zati adierazgarri eta berezietan guztiz aldatua gelditu zen: barne solairuen antolakuntza eta ordenetan, barne espazioen antolamenduan eta nagusiki, eraikinaren altxaera nagusian. Marrutizaren jatorrizko fatxadaren birmoldatzearen eredutzat gure herrialdeko udaletxe barrokoen konposaketa eskemak hartu ziren: bere balkoia eta harmarriak zituen udalbatza areto nagusia lehen solairuan, arkupearen altuerak berdintzeko bidean erdiko arkuak kendu zen eta jatorrizko erlaitza teilatu-hegal batez eraldatu zen, azken hau ere, garai hartako imajinarioan udaletxeen arkitektura tradizioarekin bat egiten zituzten estilemak erabilia.

Paradoxikoki, gure herriko udaletxeen aitzindari gutxienetakoa zen eraikina, arkitektura zibil honen irudi estereotipatu baten baitan birmoldatua izan zen¹⁴⁶. Erreformaren emaitza guztiz desegokia ez bada ere —alegia, eraikinak oraindik ere imajina instituzional bat mantentzen du eta konposaketa ikuspuntu zorrotz batekin aztertuta gaurko altxaera nagusia F. Marrubizarena baino egokiagoa dela esan liteke— Andoaingo eraikinak berpizkundeko eraikin zibilen eta XVII. eta XVIII. mendeetako udaletxeen arteko katebegi galdu modura zuen balio historikoa argazki huts batera murriztua gelditu zen.

142 IDEM, n. 9.

143 IBÍDEM.

144 IBÍDEM.

145 IBÍDEM.

146 ARRÁZOLA, M. A.; “Piedras y maderas barrocas”, *Arte Vasco*. Erein: Donostia, 1982, 160-162 orr.

sesiones y las oficinas, pero la planta primera estaba ocupada por las escuelas y viviendas para los empleados, lo que generaba también una intromisión de los “niños y las familias de los empleados que en ella viven”¹⁴³.

Esta última fue una de las principales razones argumentadas en la memoria del proyecto emprendido en 1926 para llevar a cabo la “radical transformación” de la casa consistorial, parafraseando el escrito de la memoria redactada por el arquitecto Luis Elizalde¹⁴⁴. No cabe duda de que la intervención realizada fue más allá de un cambio de distribución:

“La transformación que se propone consiste en bajar el piso segundo al principal y viceversa, dándoles las alturas que a cada cual corresponde [...]. Se trasladan en fachada principal los huecos de piso segundo al primero y se proyectan dos escudos a izquierda y derecha del central, que llevarán las armas de la villa”¹⁴⁵.

La intervención supuso el desmantelamiento y reconstrucción completa del edificio, que quedó alterado en sus elementos más singulares y representativos: en la organización interior de los niveles, la distribución de los espacios y principalmente, en su fachada principal. La recomposición de los elementos de la fachada originaria se hizo tomando como modelo compositivo las fachadas de los ayuntamientos barrocos: el salón de plenos en planta primera con su respectivo balcón y escudos, se suprimió el arco central para homogeneizar el alzado de la arquería y se sustituyó la cornisa originaria por un alero volado, acorde también con el imaginario arquitectónico que se tenía de una casa consistorial acorde con la tradición edilicia de este tipo de arquitectura.

Paradójicamente, quien fue una de las precursoras de la serie de casas consistoriales de nuestro país acabo reformándose sobre una imagen estereotipada de esta misma arquitectura civil¹⁴⁶. A pesar de que el resultado no es insatisfactorio —el edificio transmite todavía una imagen institucional que en términos puramente compositivos es probablemente más correcta que la del edificio de F. Marrubiza— el valor histórico del edificio andoainarra como eslabón entre los edificios civiles del renacimiento y los ayuntamientos de los siglos XVII y XVIII quedó reducido a un simple testimonio fotográfico.

El edificio fue reformado nuevamente en 1985 bajo la dirección de los arquitectos José Antonio Gil Saenz e Iñaki Rezabal. Se adaptó la distribución interior y principalmente, se modificaron sus fachadas posterior y lateral, la suroeste y

143 *IBÍDEM.*

144 *IBÍDEM.*

145 *IBÍDEM.*

146 ARRÁZOLA, M. A.; “Piedras y maderas barrocas”, *Arte Vasco*. Erein: Donostia, 1982, pp. 160-162.



17. plano. Udaletxearen gaur egungo altxaera nagusia erreformaren ondoren. Aritz Díez Oronoz.

Plano n.º 17. Alzado principal actual del ayuntamiento tras la reforma. Aritz Díez Oronoz.

noroeste, dándoles una composición más acorde con la nueva posición aislada que tenía el edificio¹⁴⁷.

En cuanto a la plaza, el éxito del nuevo frontón motivó propuestas para actualizar los espacios que venían utilizándose para los juegos y apuestas. Por ejemplo, en 1953, se propuso la construcción de un campo empedrado para las apuestas de arrastre del que conservamos un plano que fue reproducido en la publicación de I. Mendiluze¹⁴⁸. El proyecto proponía la adaptación del camino que discurría al norte de la iglesia, integrando en él un recinto rectangular con graderío perimetral que ocupaba el terreno adyacente al templo. Se completaba de este modo el espacio comprendido en el extremo norte del atrio superior, integrando un nuevo espacio que hubiera resultado sin duda de interés. Desgraciadamente, esta propuesta no fue completada por considerarse "perjudicial", destinándose el dinero, sin otro argumento conocido, al arreglo de otros caminos de la villa, manteniendo el campo empedrado de apuestas en su emplazamiento anterior, junto a las escaleras de la plaza, tal y como puede verse en varias fotografías antiguas.

4.2. Desarrollismo urbano y destrucción de la plaza

Los últimos años de la dictadura franquista y los primeros de la Transición tuvieron consecuencias funestas para la plaza. La aplicación de normativas pensadas para gestionar el desarrollo urbano de la villa destruyó por completo la unidad urbana y espacial de un conjunto que era fruto de una planificación del lugar espontánea, construida a lo largo de varios siglos a través de intervenciones parciales, sin un plan global, pero que compartían un mismo sentido y una misma idea de ciudad y urbanidad¹⁴⁹.

El Plan Parcial del "Polígono 18" de 1959 provocó las primeras alteraciones impropias al lugar, alterando completamente la topografía y urbanizando con muy poco acierto el terreno al sur de la iglesia, que quedó estructurado con una nueva calle con bloques aislados que irónicamente tiene hoy en día el nombre de Agustín de Leiza¹⁵⁰. La fotografía aérea de 1961 muestra el entorno de la plaza justamente antes del comienzo de esta radical transformación del lugar. Los edificios y el espacio urbano de la plaza aparecen todavía intactos, sin embargo, a su alrededor son notorios los cambios que sufriría el lugar. Destacan detrás de la iglesia los restos de las agresivas excavaciones que arrasarían con la topografía natural de la colina y en torno a ella, surgen ya las construcciones de los primeros barrios de viviendas colectivas sin vinculación alguna con la estructura urbana y la arquitectura del lugar.

147 El expediente completo de la reforma está en: A.M.A.; AG437/3-442+

148 MENDILUZE, I.; *op. cit.*, pp. 103, 107.

149 "Provincia de Guipúzcoa, Andoain", *Revista Nacional de Arquitectura*, 204, 1958, s/p.

150 Plan Parcial del Polígono 18 de 1959 (1962-1974), A.M.A., AN, 1416/12.

Eraikina 1985an zaharberritua izan zen berriz ere José Antonio Gil Saenz eta Iñaki Rezabal arkitektoen zuzendaritzapean. Barrualdeko antolamendua egokitu zen eta nagusiki, atzealdeko eta albo bateko altxaerak eraldatu ziren —hego eta ipar sartaldekoak— momentu hartan eraikinak zuen kokapen isolatuarekiko ebazpen egokiago bat emanez¹⁴⁷.

Plazari dagokionez, eraiki berria zen frontoiaren arrakasta jarraituz herri kirola probak egiteko erabiltzen zen pista eguneratzeko zenbait egitasmo sortu ziren. Adibidez, 1953an idi-probentzako zelai harriztatu bat sortzeko egin zen proiektuaren planoak kontserbatzen ditugu, I. Mendiluzeren liburuan argitaratuak daude¹⁴⁸. Proiektuak elizaren iparraldean zegoen bidea egokitzen zuen, bertan zegoen soroa perimetroan kokatutako harmarrien bidez errektangulu forma hartzen zuen zelai harriztatu bat sortuz. Modu honetan elizaurrearen iparraldeko eremuaren espazioa osatua gelditzen zen, dudarik gabe interes handikoa bilakatu zitekeen joko-espazio bat sortuz. Zoritzarrez, egitasmoa udalbatzako zenbait pertsonentzat kaltegarria iruditu zitzaenez, proiektua bertan behera gelditu zen, hartarako zegoen dirua hiribilduko beste zenbait errepide konpontzeko erabiliz. Erabaki honengatik, idi-demaren plaza kokaleku zaharrean utzi zen, hau da, zenbait argazki zaharretan ikus daitekeen modura, plazaren eskailera nagusien aurrean.

4.2. Hiri garapen-planak eta plazaren suntsipena

Frankismoaren azken urteak eta trantsizioaren lehenak zorigaitozko ondorioak izan zituzten plazarentzat. Hiribilduaren garapen urbanistikoa kudeatzeko pentsatuak zeuden araudien ezarpen okertuek, mendeetan zehar, hiriaren eta gizalegearen zentzu eta ideia berdin bat partekatuta, plan orokor zehaztu baten beharrik gabe eta zatitako esku-hartzeen poderioz, modu natural batean sortu eta osatzen joan zen plazaren bateratasun urbano eta espaziala guztiz zapuztu zituzten¹⁴⁹.

1959ko “Poligono 18” izena zuen Plan Partzialak eragin zituen lekuarentzat desegokiak ziren lehenengo eraldaketak, lekuaren topografia guztiz eraldatuta eta trebezia oso gutxiarekin elizaren hegoaldean zeuden soroak urbanizatu. Ezkerotik, eremu hau etxebizitza bloke isolatu batzuen artean igarotzen den kale baten bidez egituratu zen, ironikoki gaur egun Agustin de Leizaren izena duen kalearen bidez¹⁵⁰. Plazaren ingurua 1961an, zehazki eraldaketa erradikal honen hasieran azaltzen duten zenbait airetiko argazki kontserbatzen dira. Plaza osatzen zuten eraikin eta hiri-espazioa oraindik ere bere honetan ageri dira, baina haien inguruan, lekuak jasango zituen eraldaketen seinaleak nabariak dira. Elizaren atzealdean muinoaren topografia naturala birrinduko zuten hondeaketak nabariak dira eta haren inguruan, lekuko hiri-egitura eta arkitekturaren izaerarekin erlaziorik ez duten etxebizitza kolektiboaren lehen eraikinak altxatzen dira.

147 El expediente complete de la reforma está en: AndUA.; AG437/3-442+

148 MENDILUZE, I.; *op. cit.*, 103, 107 orr.

149 “Provincia de Guipúzcoa, Andoain”, *Revista Nacional de Arquitectura*, 204, 1958, s/p.

150 1959ko 18. Poligonoaren Plan Partziala (1962-1974), A.U.A., AN, 1416/12.



21. Irudia. Plazaren airetiko ikuspegia. A.U.A., 4783XX05, © Paisajes Españoles (1961).

Imagen n.º 21. Vista aérea de la plaza. A.M.A., 4783XX05, © Paisajes Españoles (1961).

El nuevo Plan General aprobado en 1965 continuó en esencia con esta misma idea y definió unos nuevos recintos para los futuros desarrollos de la villa, entre los que se incluía el entorno próximo de la plaza¹⁵¹. Bajo el amparo de este nuevo marco urbanístico se realizaron los primeros derribos: los de la casa de Egoabil, la casa del sacristán y la casa parroquial en 1966, que fueron reemplazados por una plaza trasera al ayuntamiento y un nuevo edificio de viviendas que sustituía a la casa parroquial, ambas, construcciones sin interés alguno. En este momento se realizó la apertura de las arquerías laterales de la iglesia, entre todas las actuaciones, la única que puede considerarse acertada dado el nuevo contexto en el que iba a situarse el templo. La urbanización del vacío resultante, terraplenado con un nuevo muro de contención, escaleras y una plazuela que conectaban el atrio de la iglesia con la calle Agustín de Leiza, fue proyectado por Carlos Sobrini Marin y ejecutado

¹⁵¹ Plan General de 1965. Revisión del plan general de ordenación urbana, A.M.A., AN 1346/2 (1962-1966).

1965an onartutako Plan Orokor berriak funtsean ideia berdina jarraitu zuen eta hiribilduaren etorkizuneko barruti berriak zehaztu zituen, haien artean, plazaren gertuko ingurua barne hartzen zuen barrutiarena¹⁵¹. Esparru urbanistiko honen babesean gauzatu ziren lehenengo eraisketak: Egoabil, elizainaren eta errektorearen etxearenak 1966an, udaletxearen atzealdeko plazarekin eta errektorearen etxea ordezkatzeko zuten eraikin baten truke bota zirenak, azken biak, interes gabeko eraikin eta espazioak. Momentu honetan gauzatu zen baita ere elizak bi alboetan zituen elizpeen arkuen irekiera, tenpluaren inguruak jasan behar zituen kontestu aldaketak zirela eta egokitzea hartu daitekeen esku-hartze bakarra. Eraisteen ondorioz gelditutako hutsunaren urbanizazioa, bere euste horma, Agustin de Leiza kalea elizaurrearekin konektatzen zituzten eskailera, eta elizaurrearen ondoko plaza txoa, Carlos Sobrini Marin arkitektoak diseinatu zuen eta proiektuarekiko eraldaketa nabariekin gauzatu izan zen¹⁵². Etxeak eraisteko baimenak elizako erretore zen D. Nicolás Apaolaza Uriarte berak eskatu zituen, eta elizaren etxe berria Luis Agustin Alustiza Garagalza arkitektoak diseinatu eta eraikia izan zen¹⁵³.

Eraisketa prozesu honek azken burugabekeria baten ukitua izan zuen: "Polígono 17" izena zuen Plan Partzialaren 1975ko onarpenarekin eta 1977. urte-tik aurrera jazo zen haren gauzatzearekin. Proiektuaren izena bera haren bultzatzailek hiriaren ondare urbanoarekiko eta erdiguneko espazio honek bere baitan zituen sinbolismo eta esanahiekiko zuten sentikortasun ezaren adierazgarri da: bere gizarte eta kultura identitateen balioekiko, Andoaingo hiribildu gazteari auzo guztien erdigune amankomuna zena eraikitzekeko beharrezkoak izan ziren denbora eta esfortzuarekiko. Planak izan zuen emaitzak agerian uzten du egitasmoak zuten funts espekulatiboak, hazkunde demografikoaren aferari erantzun azkar eta partzial baterantz bideratuta nagusiki, beste edozein gogoeta baztertuta, pasa berria zen diktadura garaian, hamarkada gutxietan gure herrialdeetako hiri memoria eta paisaia ezabatu zuten planifikazio txarrenen bide berean zegoena.

Andoain ez zen salbuespen bat izan hazkunde demografiko azkar batean murgildu ziren herrien artean. Planak, hiri-ehundura historikoa eta plazak bere inguruarekin ezartzen zuen erlazioa guztiz suntsitu zituen: frontoiaren eraistea eta plazatik kanpo frontoi estali berri baten eraikitzea, eliza inguratzen zuten soro eta larren berdintze eta urbanizatzeari, plaza bitan banatzen zuen errepidea eta lekuarekin erlazio bolumetrikiko edota tipologikorik ez zuen altuera handiko eraikinak izan ziren planaren ondorio nabariak. Planaren onarpena ez zen berehalakoa izan eta zenbait aldaketa jasan zituen bere lantze prozesuan. Hiru zinegotziren presioengatik proiektuaren txosten bat eskatu zen Arkitekto Elkargora. Egitasmoak sortzen zituen arazo nagusiak saihestuta, eraikinen altueran eta ordenazioan zenbait aldaketa txiki proposatu zituen Elkargoak, modu honetan proiektuaren funts nagusiari zilegitasuna eskainita. Proiektuak proposatzen zituen eraldaketekin arduratuta, uda

151 1965ko Plan Orokorra. Hiri antolamenduaren Plan Orokorren errebisioa A.U.A., AN 1346/2 (1962-1966).

152 A.U.A., AN. 1416/12.

153 A.U.A., 130/4.

con claras diferencias respecto al proyecto¹⁵². El derribo de las casas, fue solicitado por el mismo párroco de la iglesia, D. Nicolás Apaolaza Uriarte, y el proyecto del nuevo edificio fue realizado por Luis Agustín Alustiza Garagalza¹⁵³.

Este proceso de destrucción tuvo su conclusión con un último despropósito: la aprobación del denominado "Plan Parcial del Polígono 17" en el año 1975 y su ejecución a partir del año 1977. El nombre mismo del proyecto es identificativo de la insensibilidad de sus promotores respecto del patrimonio urbano de la villa, del simbolismo y significado que encarnaba este espacio urbano central: de su valor identitario, social y cultural, del tiempo y esfuerzos que había costado construir este centro común para la joven villa de Andoain. El resultado deja en evidencia el fondo especulativo de la intervención, centrado únicamente en dar una respuesta rápida y parcial al problema del crecimiento demográfico, pasando por encima de cualquier otra consideración, en línea con las peores planificaciones de la pasada dictadura, que eliminaron en unas pocas décadas gran parte de la memoria urbana y paisajística del país.

Andoain no fue una excepción entre las poblaciones que se vieron inmersas en un crecimiento demográfico acelerado. El plan destruyó por completo el tejido urbano histórico y la relación paisajística de la plaza con su entorno, derribando el espacio del frontón y trasladándolo a un edificio cerrado, allanando y urbanizando los campos que rodeaban la iglesia, dividiendo la plaza en dos mitades mediante una carretera y permitiendo la construcción de una edificación de altura desmedida y un trazado sin ninguna relación —ni volumétrica, ni tipológica, ni ambiental— con el lugar. La aprobación del plan no fue inmediato y estuvo sujeto a varios cambios. Debido a la presión de tres concejales, el primer proyecto fue enviado a informar al Colegio de Arquitectos, que sorteando el problema de fondo, se limitó a rebajar la altura de los edificios y proponer cambios triviales en la ordenación, legitimando de este modo el fundamento de la intervención. En verano del mismo año, los mismos tres concejales, preocupados de algún modo por la deriva del proyecto, presentaron una moción acompañada de un plano que se ocupaba más por el carácter del espacio público resultante, sin alterar tampoco en su esencia los volúmenes y ordenación propuesta por el plan.

Resulta revelador que en todo este proceso la discusión se centró en la posición del nuevo edificio-frontón cubierto, más próximo a la plaza para quienes actuaban en favor de la villa y con una posición periférica para los redactores del plan y del Colegio de Arquitectos. Este hecho deja en evidencia el desconocimiento general de ambos bandos respecto de los valores espaciales y comunitarios que representaba el espacio del juego de pelota en su posición originaria —en la plaza— confundiendo un espacio de representación como un espacio puramente funcional y deportivo. Que el nuevo frontón se propusiera en un edificio cubierto añade más enjundia a la cuestión, pues aparece uno de los argumentos más genuinos del terruño y que se sigue utilizando para justificar y tratar de legitimar actuaciones cuyos fines y objetivos son realmente otros.

152 A.M.A., AN 1416/12.

153 A.M.A., 130/4.



22. irudia. 1983. urteko ortoargazkia. DFG.

Imagen n.º 22. Ortofoto del año 1983. DFG.

